



GAZTERIAREN EUSKAL LEGEAREN PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, 10.39 artikulua bidez, gazte-politika garatzeko eskumena eman die EAEko botere publikoei. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion eskumen eskusiboa da, zeinari ez baitio inolako oinarrizko legeriak edo esparrulegeriak eragiten, ez eta ekonomia-printzipio antolatzaileek eta Estatuaren goi-ikuskaritzak ere.

EAEko administrazio publikoen arteko eskumenen banaketa Autonomia-erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean jasota dago. Han ezartzen denaren arabera, lurralde historikoei dagokie beren lurraldean erakunde komun legeria betearaztea –Eusko Legebiltzarrak emandako legeak nahiz autonomia-erkidegoko gobernuak onarturiko xedapen arauemaileak gazte-politikei eta gazteentzako baliabideei buruz–, ezertan eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun zuzeneko ekintza. Lurralde historikoei dagozkien betearazpen-eskumenen artean daude beren zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak egiteko ahala, administrazio-ahala –ikuskaritza barne– eta administrazio-bidean berrikusteko ahala.

Udal-esparruari gagozkiorik, udalerriek eskumen propioak erabili ahal izango dituzte esparru honetan: «gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea»; izan ere, halaxe xedatzen du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.36 artikulua (artikulua idazpuru: «Udalerrien eskumen propioak»).

Euskal Autonomia Erkidegoan egin den gazte-politika berrikusita, argi geratzen da gazteen ibilbidea aurreikusteko modukoa zela 80ko hamarkadara arte; izan ere, prestakuntza-aldia amaitu eta ia berehala lanean hasten ziren, ibilbide profesional bat diseinatzeko aukera ematen zuten kontratu egonkorrekin, eta, ondorioz, etxebizitza bat eskuratzeko aukera izaten zuten.

Alabaina, azken urteotako aldaketa sozialek –hala nola langabeziak, lanaren prekaritateak edo ordainsari apalek– “ziurgabetasunaren gizartea” edo “arriskuaren gizartea” izenez ezagutzen dena sortu dute. Prekaritate horren jatorria, batzuetan, kontratuz kanpoko formulen iruzurrezko erabilera da; adibidez, prestakuntza-beken eta -kontratuen erabilera.

Nabarmen atzeratu da familiarengandik emantzipatzeko eta etxebizitza independentea eskuratu ahal izateko adina. Ondorioz, gazteen egoera gaur egun bestelakoa da: lanbide-trantsizioak konplexuagoak dira, familiarengandik emantzipatzeko adina atzeratu egin da, eta, azken batean, gaztaroa luzatu –hasiera goiztiarragoa da, eta helduarora igarotzeko trantsizioa, aldiz, beranduago amaitzen da–.

Gazteek dependentzia ekonomiko eta familiarra dute, eta egoera hori ez da balio kulturalen arloan gertaturiko aldaketaren ondoriozkoa, baizik eta, nagusiki, aipatu ditugun egiturazko baldintzek eragindakoa. Datu berriek erakusten dute aldea dagoela gazteek

emantzipatu nahi duten adinaren eta hori hala izateko baldintzak ematen diren adinaren artean.

Gazteen dependentzia-aldia luzatu izanaz gain, badira garrantzi kualitatiboa zein kuantitatiboa duten beste egoera batzuk ere, gazte-taldeei eragiten dietenak; kasu batzuetan, egoera pertsonal, familiar, kultural, ekonomiko edo sozialen ondorio dira, eta, kasu guztietan, osotasunez garatu eta gizarteratzeko aukerak murrizten dizkiete. Desgaitasuna izateaz ari gara, adibidez, edo gaztearen prestakuntza eta garapen osoa bermatuko duten baliabide ekonomikorik ez duten edo premia bereziak dituzten familia-nukleoetakoa izateaz.

Gainera, bereziki aipatu behar da emakume eta gizon gazteen berdintasunaren auzia. Emakumeek eta gizonak euskal gizartean eskubide-berdintasuneko espazioak izatea lortu dute, baina hori, errealitatean, ez da gauzatzen, ezta gazteen artean ere. Berdintasuna onartzea funtsezko urratsa izan bada ere, oraindik ez da nahikoa. Gaur egungo gazteek aurreko belaunaldikoek baino zeregin parekideagoak betetzen dituzte gizartean, baina, hala ere, oraindik indar handia dute matxismoaren ondorio diren genero-estereotipoek, rol sexistek, emakume gazteek laneratzeko garaian eta lansarrietan bizi dituzten diskriminazio-egoerek, pobrezia feminizatuak –emakume gazteei ere eragiten baitie– eta emakume gazteen gorputzak gauza bihurtzeko eta sexualizatzeko joerak, eta hori guztia argi islatzen da aisian, kirolean, kulturean, laneratzean eta familia-ereduetan. Neska gazteek ere aurre egin behar izaten diote indarkeria matxistari, sexistari eta sinbolikoari, eta horrek oztopatu egiten ditu herritar gisa dituzten eskubideak.

Beste alde batetik, kontuan hartu beharra dago gazteak nerabegarora gero eta lehenago iristen direla, hainbat arrazoi direla medio: hezkuntza-sisteman izandako aldaketengatik, ibilbide akademikoak hautatu behar izateagatik edo erabakiak gero eta lehenago hartu behar izateagatik (sexualitateari eta drogen kontsumoari buruz, besteak beste). Horri dagokionez, aintzat hartu beharrekoa da gaur egun indarrean dagoen araudia, batez ere adingabeei buruzkoa; bereziki, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea, lege horretako edukiak lege honekin uztartu behar baitira. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da gazteriaren euskal lege honek sustapen-gaiak arautzen dituela, eta ez dituela laguntza-sistemei dagozkien eskumenak jorratzen. Edozein kasutan, bi legeak aplikatzeko garaian gorde behar den koordinazioa eta haurrekin eta nerabeekin egin beharreko jardueren koordinazioa legeetako bakoitzean horretarako sortutako organoen bitartez burutuko dira. Orobat, kontuan hartu da Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan eta Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

Beste alde batetik, ezin da ahantzi pertsonaren sozializazio-prozesuan, gaztaroa – indibidualizazioa eta autonomia areagotzen dituen etapa hori– muin-muineko fasea dela, estrategikoa. Gaztaroak indartu egin behar ditu helduarora igartzeko trantsizioari dagozkion egiturazko alderdietatik hein batean aldentzen diren premia batzuk. Horrenbestez, ezinbesteko bilakatzen da gazteen logika jakin batekin bat datozen politikak garatzea.

Erreferentzia gisa, aipatzekoak dira gazte-politikan zeharka egin diren ahalegin ugariak, Euskal Autonomia Erkidegoan 1999. urtetik hona elkarren segidan egin diren

gazte-planak batez ere, eta EAEko hainbat erakunde publikok legegintzaldi bakoitzerako taxutu dituzten gazte-planak, *Euskadiko III. Gazte Plana 2020ren Marko Orokorra. Gazteriaren arloko Euskal Estrategia* lanean jasotako orientazioei jarraituz.

Gainera, nabarmentzekoa da EAEko administrazio publikoek eta gazteei eragiten dieten politika publikoak garatzen dituzten gainerako entitate eta eragileek Euskadin aspalditik egiten duten lana arlo hauetan: lanbide-heziketan, hezkuntzan eta hizkuntza-politikan, eta familia- eta enplegu-politikan.

Halaber, gazteek ekarpen handiak egiten dizkiote eta egin ahal izango dizkiote euskal gizarteari etorkizunean; izan ere, haien partaidetza aktiboa –besteak beste, bizitza politiko, ekonomiko eta kulturean eta kirol eta elkarten arloan– funtsezkoa da Euskadi eraikitzeko.

Bestalde, azpimarratu behar da gazteak Espainiako Konstituzioan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuan eta giza eskubideen eta eskubide indibidual eta kolektiboen babeserako nazioarteko tresna hauetan onartuta dauden eskubide, eginbehar eta askatasunen titular direla: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean; Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunean; Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunean; Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen aldeko Europar Konbentzioan; Europako Gutun Sozialean; Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan, eta sektoreko beste hainbat tresnatan –hala nola Gazteen Eskubideen Iberoamerikar Konbentzioan–.

Lege honek, orobat, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan jasota dauden garapen jasangarrirako helburuei erantzuten die, batez ere berariaz gazteei zuzenduta dauden helburuei. Beraz, lege hau «Euskadi Basque Country 2030 Agenda»ren esparruan aurkezten da.

Beste erreferentzia-dokumentu bat «*Gazteen arazoei erantzuteko azterlanerako eta eztabaidarako batzorde txostengilearen txostena*» izeneko lana da, Eusko Legebiltzarrak X. legegintzaldian onartu zuena. Txosten horretan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion Gazteriaren Euskal Legea egin zezala, gazteei eragiten dieten politikak garatzen dituzten edo garatu behar dituzten Gobernuako sailekin batera. Gainera, baldintza gisa jarri zitzaion herritarrei –banako gisa– eta elkarteei –Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bidez– partaidetza prozesua zabaltzea eta, jakina, gainerako administrazioekin elkarlanean aritzea.

Araugintzaren ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoan gazteriaren arloan erreferentziazko hainbat arau eta agiri dago gaur egun, urteotan gazteria-eragile izan direnek pilatutako esperientziaren eta ibilbidearen erakusgarri. Bada, oso garrantzitsua da den-denak aprobeztatzea: Kultura eta Turismo Sailaren 1986ko urtarrilaren 15eko Agindua, Euskal Herriko Gazte Elkarten eta Gazteriari Zerbitzuak eskaintzen dizkieten Entitateen Zentsu Nagusia sortzeko dena; 6/1986 Legea, maiatzaren 27koa, Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa, eta lege hori zati batean garatzen duen uztailaren 8ko 162/1986 Dekretua; 14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Zentro Koordinatzailea sortzen duena; 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onspen ofiziala arautzen duena; 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, Haur- eta gazte-

taldeen ostatu-hartze eta egonaldietarako aterpetxeen eta instalakuntzen antolaketari buruzkoa; 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena; 2016ko urriaren 27ko Agindua, 419/1994 Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzekoa; 260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko «Gazte txartela / Carnet joven» eratu eta arautzeko dena; Kultura sailburuaren 1997ko azaroaren 12ko Agindua, Haur- eta gazte-taldeen ostatu-hartze eta egonaldietarako aterpetxeen eta instalakuntzen antolaketari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen duena; 239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak aldatua; eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehaztekoa.

Araugintzaren ikuspegitik ere ezin ditugu ahaztu Euskararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Lege Orokorra eta haren araugintza-garapena; izan ere, euskara oso garrantzitsua da aspalditik gazteen arteko harremanetan eta haien prestakuntza elbidunean.

Argi geratzen da, beraz, gazteriaren arloko legeria sakabanatuta dagoela eta ez duela egitura sistematiko egokirik. Horregatik, lege honen bidez, legeria hori guztia antolatuko da.

Gainera, ukaezina da gaur egun, testuinguru gero eta globalago honetan, aldagai kontrolaezinek eta nekez aurreikus daitezkeenek gero eta eragin handiagoa dutela egoera sozialean, ekonomikoan eta kulturean. Horregatik, nahitaezkoa da administrazio publikoek tresna eraginkorrak eta malguak edukitzea, uneko beharrei eta eskariei erantzuteko neurri eraginkorrak eta egokiak har ditzaten.

Ondorioz, gazteen prekaritatea egiaztatuta eta gazteek gizartean benetako protagonismoa duen belaunaldi gisa finkatzeko dituzten zailtasunak ikusita, ezinbestekoa da azken urteotan gauzatuz joan den ikuspegi-aldaketa sendotzea: aisia eta zerbitzuak eskaintzea ezin da izan gazteen errealitate sozialari emango zaion erantzun bakarra, ez eta nagusia ere. Hori dela eta, asmoa da gazte-politika globalak planteatzea; hau da, gazteei eragiten dieten arazoei erantzungo dietenak eta, gizartean gauzatuko diren aldaketak ikusita, egoera berrietara egokituko direnak. Gazteen benetako berdintasuna bultzatu beharra dago, irispide bera izan dezaten ekoizpen-baliabideetara eta ongizatera; horretarako, baliabide publikoak banatzeko estrategia aproposak egokituko dira eta batez ere babestuko dira zailtasun bereziak dituzten gazte-taldeak, betiere sekzioartekotasuna zainduta.

Helburu horrekin, erakundeek zeharkako gazte-politikan ahalegin ugari egin dituzte – lehen aipatu ditugunak–, eta berriaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen garapena bultzatu dute, hala nola gazte-informazioarako irispidea, hezkuntza ez-formala aitortu eta sustatzea, gazteentzako ekipamenduen sarea indartzea, eta mugikortasuna eta truke kulturalak, auzolandegiak eta partaidetzan oinarrituriko aisialdiko programak sustatzea –hainbat erakunde-sailek eta gizarte-sektorek gauzatuak–.

Gazte-politika integralaren kontzeptutik abiatuta, ikuspuntu kulturalista hutsa – aisialdian oinarritua– gainditu ahal izango da, aintzat hartuko baitira, batetik, berdintasunaren eta emantzipazioaren aldeko ekimenak sustatzera bideratutako ekintzarako estrategia globalak –hau da, gazte-planen bitartez bultzatu direnak–, eta, bestetik, gazteriaren sustapenean zuzeneko eragina duten esparruak.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Euskal Legeak gazte-politika integrala bultzatzeari buruz EAEko administrazio publikoei eman zaizkien eskumenak eta eskudantziak arautzeko premiari erantzuten dio. Gazte-politika integralak, batetik, gazteen autonomia, emantzipazioa eta gizartratzea posible egingo dituzten neurriak barne hartzen ditu, zeharkako gazte-politikak planifikatuta, gauzatuta eta ebaluatuta, eta, bestetik, gazte-sustapena barne hartzen du, euskal administrazio publikoen hainbat sailek berariaz gazteentzat abian jarritako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen bitartez eta, betiere, berdintasunaren printzipio gidaria argi izanda eta gazteen partaidetza sustatuko duten prozesuak eta bideak erabilia, gazteek beren eskubide eta askatasunak egikaritzeko dituztela babesteko eta errazteko.

Azken urteotan gazte-politikaren kontzeptua zabalduz joan da, eta, kontzeptu berri horri lotuta, Gazteriaren Euskal Legearen hiru helburu nagusienak zehaztu dira. Lehenik, gazteen autonomia eta emantzipazioa erraztea, zeharkako politikak eta sailarteko eta erakundearteko koordinazioa sendotuta; bigarrenik, berariaz gazteak sustatzera bideratuta dauden zerbitzuetan eta ekipamenduetan koordinatuta lan egingo dela bermatzea; eta, hirugarrenik, EAEko gazteei parte hartzeko eta solaskide izateko bideak zabaltzea, bide egonkorak sortuta –baita toki-eremuan ere– eta, bide horietan, elkarteetako gazteak eta elkarteetan ez daudenak aintzat hartuta. Horrekin guztiarekin bermatu nahi da gazteek berdintasun-baldintzetan irispidea izatea eta batez ere babestea zailtasun bereziak dituzten gazteak, emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan bultzatuko duen ikuspuntua jorratuz.

Horrela, bada, gazte-politikaren helburu argi eta agerikoetako bat izan behar da jatorrizko etxetik irten nahi duten gazteei –nagusiki 25-29 urte bitartekoei– hori egitea eta beren familia-nukleoa osatzea oztopatzen edo, areago, eragozten dieten trabak kentzea.

Lege honen bidez, gazteei garatzen eta helduarora igarotzen lagunduko dieten baliabideak eskaini behar dira. Hori dela eta, gazteen autonomia pertsonal eta ekonomikoa sustatuko da, emantzipazioari begira. Horretarako, planteamendu babesleegiak saihestu beharko dira, halakoek gazteen emantzipazioa eta partaidetza soziala atzera eta oztopa baitezakete.

Hori hala izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kudeaketa-mekanismoak behar ditu, eskumenak behar bezala garatuko direla eta esleitzen zaizkion eginkizunak arinago beteko direla bermatzeko.

Horren haritik, Gazteriaren Euskal Sistema sortzen da, zeinaren helburua baita haurrak, nerabeak eta gazteak osoki garatzea eta beren haurtzaroaz, nerabezaroaz eta gaztaroaz gozatzea, egonkortasunez eta jarraitutasunez. Izan ere, bizitzako aro horiek berezko balioa eta esanahia duten funtsezko aldiak dira, zeinetan norbera baita bere bizitzaren protagonista, herritar eskubidedun eta gizarte-sarearen zati ezinbesteko. Aldi horietan, gainera, norberaren gaitasunak eta lotura sozialak ikasiz eta indartuz eta heltze-

prozesuaren bidez, emantzipaziorako prozesua gauzatzen da pixkanaka, heldutasunerako trantsizio arrakastatsu eta gogobetegarria, bizitzaren fase horietan erabakiak hartzeko autonomia handiagoa eskuratzen baita eta autonomia hori norberaren bizi-proiektuan praktikan jartzen.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Xedea eta helburua.

1.- Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan gazte-politika garatzeko behar den arau- eta eskumen-esparrua antolatzea.

2.- Lege honen helburua da gazteei beren eskubideak egikaritzeko babes eta erraztasunak ematea, haien izaera edo baldintzak edozein izanik ere; gazteek gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, jasangarri eta kulturean aktiboki parte har dezatela sustatzea, eta gazteen autonomia eta emantzipazioa posible egingo duten baldintzak sorraraztea, haurtzaroan hasitako etengabeko prozesuaren amaiera gisara.

2. artikulua.- Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, honela ulertu behar dira kontzeptu hauek:

a) *Gazte-politika*: gazteek beren bizitzako esparru guztietan dituzten premiei arreta ematen dieten eragileen esku-hartze guztiak, bai eta hurrei eta nerabeei eskaintzen zaien arreta ere, aisialdiaren erabilerari eta sustapen-eremuari dagokienez. Gazte-politikak bi esparru hartzen ditu barnean: gazteriaren arloko zeharkako politika eta gazteen eta haurren sustapena.

1) *Gazteriaren arloko zeharkako politika*: EAEko administrazio publikoetako sailek eta bestelako organismoek eta eragile sozialek gazteen autonomia eta emantzipazioa erraztera bideratzen dituzten esku-hartzeak dira.

2) *Gazteen eta haurren sustapena*: berriaz hurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza da, xede duena haiek kulturalki eta sozialki garatzea, bai norbanako gisa, bai talde gisa; horretarako, nagusiki, haurren eta gazteen ekimena eta sormena, mugikortasuna, informaziorako, akonpainamendurako eta hezkuntza ez-formalerako irispidea, partaidetzan oinarritutako aisia, ondasun eta zerbitzuetarako irispidea eta enplegurako estrategien eskaintza bultzatzen dira.

b) *Gazteen emantzipazioa*: gazteak osotasunez eta aukera-berdintasunez gizarteratzea lortzea da, beren bizi-proiektua autonomiaz eraikitzeko eta eskubide guztiak egikaritzeko aukera izan dezaten, arreta berezia ipinita gazte zaurgarrienei.

c) *Gaztea*: 12-30 urte bitarteko pertsonari –biak barne– esaten zaio, hargatik eragotzi gabe lege honen 3. artikuluan jasotako zehaztasunak.

d) *Gazteen partaidetza*: prozesu, ekintza eta jarrera jakin batzuk dira, zeinei esker gazteek aukera baitute beren inguruneari, harremani, pertsonalki zein kolektibo gisa garatzeko aukerei eta, zuzenean zein zeharka, beren bizi-proiektuetan –kolektibo diren aldetik– eragiten duten inguruabarrei buruz erabakitzeke eta horietan guztietan esku hartzeko eta ukitzen dieten araugintza-proiektuen berri izateko.

3. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1.- Lege hau EAEko administrazio publiko guztiei aplikatuko zaie, eta, orobat, lege honetan arautzen diren jarduerak garatzen edo zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiei, publiko zein pribatuei.

2.- Lege honetan arautzen den gazte-politika Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera euskal herritar kondizio politikoa duen gazte orori zuzendurik dago, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean aurkitzen den gazte orori ere.

3.- Gazteriaren arloko zeharkako politika bultzatzeko neurriak eta tresnak 18-30 urte bitarteko gazteei –biak barne– zuzenduak daude. Hala ere, programa edo jardun jakin batzuek, haien izaera edo helburuak direla eta, beste adin-muga batzuk izan ditzakete ezarrita, baina muga horiek ezingo dira, inolaz ere, lege honetan jasotzen diren printzipioen eta bermeen kaltetan izan; hala nola 30 urtetik gorakoek etxebizitza edo nekazaritza-ustiategiak eskuratzearen kaltetan.

4.- Gazte-sustapeneko neurriak eta tresnak 12-30 urte bitarteko pertsonari –biak barne– zuzenduak daude.

5.- Lege hau adingabe guztiei aplikatuko zaie, aisialdiaren erabilerari eta haur-sustapenaren eremuari dagokienez.

4. artikulua.- Printzipio gidariak.

Honako hauek dira gazte-politikaren printzipio gidariak:

a) Gazteen egoeraren arreta integrala: gazteak gizarte-, lan-, politika-, ekonomia-, ingurumen- eta kultura-eremuetan txertatzea bultzatzeko neurriak zehazterakoan, gizarte osoak eta, bereziki, EAEko administrazio publikoek eta eragile sozialek izan behar duten inplikazioa da.

b) Zeharkakotasuna: EAEko administrazio publikoetako sailek aurrera eramandako lerro eta neurrien inguruko orientabidea eta koordinazioa da; alegia, biztanle talde jakin batzuetan espezializatuta dauden sailen eta jarduera-sektore jakin batzuetan oinarrituta daudenen arteko koordinazioa eta orientabidea.

c) Lurraldetasuna: gazteriaren arloko esku-hartzeak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzean, lurralde bakoitzaren errealitatearen ikuspuntua txertatzea da.

5. *artikularia*.- Printzipio orokorrak.

EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan egingo duten jarduna printzipio orokor hauek gidatu eta bideratuko dute:

a) Aukera-berdintasuna. Aukera-berdintasuna esaten zaio, batetik, gazte guztiek eskubide politikoak, zibilak, laboralak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan onar lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, eraginkortasunez eta berdintasunez egikaritzen dituztela bermatuko duten neurri egokien multzo bat aplikatzeari, eta, bestetik, baliabide eta onura soziokulturaletara irispidea izateko abiagune edo hasierako baldintzetan ez ezik, horiek guztiak egikaritzeko eta eraginkortasunez kontrolatzeko baldintzetan aukera-berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak aplikatzeari.

b) Unibertsaltasuna, eta aniztasuna nahiz desberdintasuna errespetatzea. Behar diren baliabideak jarri beharko dira gazteen emantzipaziorako prozesuan desberdintasunak eta aniztasuna errespetatu daitezzen; izan ere, gazte guztiak izango dira gazte-politiken hartzaileak, eta ezingo da inolako bereizketarik egin arraza, sexua, hizkuntza, dibertsitate funtzionala, orientazio sexuala, genero-adierazpena, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein buruzko iritzia, jatorri etnikoa, maila ekonomikoa, jaioterria edo beste edozein egoera pertsonal nahiz sozial dela eta, bai gazteen kolektiboaren euren baitan, bai beste biztanle kolektiboekiko.

c) Gazte-ikuspegia txertatzea. Gazte-ikuspegia txertatuko da EAEko administrazio publikoen politika eta ekintza guztietan, eta, horrenbestez, desberdintasunak ezabatzeko eta gazteen emantzipazioa sustatzeko helburu orokorra ezarriko da denetan. Gazte-ikuspegia txertatzea zera da: gazteen egoera, baldintza, jomuga eta premiak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, haiei lotutako politika eta ekintza guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko xedea duten helburuak eta berariazko jardunak txertatzea.

d) Ekintza positiboa. Gazteen benetako emantzipazio eraginkorra lortzea sustatze aldera, hau jotzen da ekintza positibotzat: denboran ondo mugatutako berariazko neurriak abiaraztea, bizitzaren eremu guztietan adinaren zioz gertatzen diren egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko. Era berean, ekintza positiboaren printzipioa aplikatuko da, diskriminazio-egoeretan edo -baldintzetan dauden gazteen berdintasunik eza murrizteko. Lege honen ondorioetarako, ez dira diskriminatzailetzat hartuko justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, gazteei tratamendu desberdina ematea badakarte ere. Neurri horien artean sartzen dira ekintza positiboan oinarritzen direnak.

e) Emakumeen eta gizonen berdintasuna. Sexuaren ziozko diskriminazio mota guztiak desagerraraztea sustatuko da, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne. Horrez gain, adinaren arabera gizartean dauden genero-estereotipoak eta rol sozialak desagerraraztea bultzatuko da, eta lan egingo da gazteen artean, edozein egoera pertsonal edo sozial dela eta, desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sorrarazten edo bultzatzen dituzten rol sozialak desagerrarazteko.

f) Elkarlana eta koordinazioa. EAEko administrazio publikoak gazte-politikak garatzean elkarlanean arituko dira, jardunak koordinatuta, beren esku-hartzeak

eraginkorragoak izan daitezen eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat etor daitezen. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz kanpoko beste erakunde eta entitate batzuen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatuko dira; bereziki, gizarte-ekimenarekin.

g) Erantzukizun publikoa. Gazteen autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatuko dira; bereziki, gazte-politiken garapena eta gazteenganako arreta bultzatuko dira, eta gazteek lege honetan eta geroko garapenetan arautzen diren laguntza, jarduera, zerbitzu eta ekipamenduetara irispidea izatea erraztuko da.

h) Plangintza eta ebaluazioa. Antolamendu-esparru egokitu eta egonkorra ezarriko da gazte-gaietarako, aurrera eramango diren ekintza eta planteamendu guztietan koherentzia, eraginkortasuna, jarraitutasuna, baliabideen optimizazioa eta etengabeko hobekuntza bermatze aldera.

i) Hurbiltasuna. Berariaz gazteei zuzenduta dauden jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak nagusiki toki-mailan eskaini behar dira; hau da, deszentralizazioa eta herritarrekiko gertutasuna garatu behar dira.

j) Gazteen partaidetza demokratikoa. Gazteek gizartearen eraikuntzan osotasunez eta aktiboki parte hartzeko duten eskubidea bermatuko da. Horretarako, gazteen eta EAEko administrazio publikoen arteko solaskidetza- eta elkarlan-guneak sortu eta sendotuko dira, elkarteak eta gazteen ekimenak sustatuko dira eta partaidetzaren aldeko kultura bultzatuko da, baita elkarteetan ez dauden gazteen artean ere. Era berean, gazteek parte hartuko dute gazteentzako politika eta baliabideak taxutu eta abiarazteko garaian, halakoak gazteen eskari eta igurikiminetara egokitu daitezen.

k) Balioen sustapena. Gazteek balio demokratikoak gara ditzaten sustatuko da; hots, elkarbizitza, askatasuna, berdintasuna, tolerantzia, elkartasuna, jasangarritasuna eta bakearen eta giza eskubideen defentsa bultzatzera bideratutako programak eta ekintzak sustatuko dira.

l) Informazioa. Gazteek edozein unetan eskuratu ahal izango dute berei eragiten dieten politika eta jardun publikoei buruzko informazio osoa. EAEko administrazio publikoek lege honen ondorioz gazteen eskura jartzen duten informazio guztia Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo da.

m) Kalitatea, berrikuntza eta ikaskuntza soziala. Gutxieneko kalitate-estandarrak bermatuko dira eta, horretarako, autonomia-erkidegoaren mailan eta erabat bermatuta toki-autonomiaren printzipioa, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta toki-erakundearen kudeaketa-ahalmenaren printzipioa (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera), gutxieneko baldintzak arautuko dira –materialak, funtzionalak eta langileei buruzkoak–, zeinak bete beharreko oinarrizkoak izango baitira. Era berean, estandar horien hobekuntza eta, gazte-politikak garatzeko orduan, kalitatera bideratutako kudeaketa sustatuko dira. Gainera, gazte-politikak eraikitzeke oinarri gisa ezarriko dira etengabeko berrikuntza, ikaskuntza soziala, esperimendazioa eta negoziazioa.

n) Euskararen erabileraren normalizazioa. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ikasi eta erabiltzea bermatuko da, eta gazteen artean euskararen erabileraren

normalizazioa bultzatuko, bizitzaren esparru guztietan. Horrez gainera, gazteek EAEko administrazio publikoekin dituzten harremanetan –ahozkoetan eta idatzizkoetan–, euskara zein gaztelania erabiltzeko eta batean zein bestean hartua izateko eskubidea bermatuko da.

o) Kulturartekotasuna. Gazteek Euskal Autonomia Erkidegoko eta kanpoko errealitate kulturalak ezagutzea ahalbidetuko duten ekintzak eta programak bultzatuko dira, eta gure errealitatea kanpoan ezagutzea ahalbidetuko dutenak ere bai. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ez ezik, beste hizkuntza batzuk ikastea ere sustatuko da, hizkuntzak jakitea oinarrizkoa baita hainbat herrialde eta kulturatako gazteak elkarrekin komunikatzeko.

p) Gazte atzerriarren integrazioa, giza eskubideen adierazpenak betez.

I. TITULUA

EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESKUMENAK ETA ESKUDANTZIAK

6. artikulua.- Eskumenen banaketa.

1.- Eusko Jaurlaritzari dagozkio legegintzako ekimena eta erregelamenduak emateko ahala, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, berriz, gazteriaren arloko zuzeneko ekintza.

2.- Lege honen ondorioetarako, honako hau da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zuzeneko ekintza: interes orokorrekoak direlako edo baldintza ekonomiko, sozial edo tekniko bereziak dituztelako, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan modu bateratuan eskaini behar diren gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak gauzatzeko eskumena, hurrengo artikuluan zehaztuko den moduan.

3.- Baldin eta lege honetan jasota ez dagoen zuzeneko ekintzako jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berriren bat sortzen bada, aurreko apartatuan adierazi diren baldintzak betetzen direla arrazoitu beharko da eta hala adierazi beharko du Eusko Jaurlaritzak dekretu baten bidez, EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren nahitaezko txostena jaso ondoren.

4.- Foru-aldundiei dagokie gazteriaren arloko arauak betearaztea, lege honetan eta berau garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

5.- Toki-administrazioak gazteriaren arloko arauak antolatzeko eginkizuna beteko du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.36 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskudantziak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteriaren arloan dituen eskumenak eskudantzia hauetan gauzatzen dira:

a) Gazteriaren arloko Euskal Estrategia taxutzea, EAEko gainerako erakunde publikoekin elkarlanean. Estrategia horretan, zenbait esku-hartze ildo eta gidalero jasoko dira, EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatuko duten jarduera bideratzeko balioko dutenak, zeinei esker lehentasunak ezarriko baitira eta bermatuko baita lege honetan jasota dauden helburuak eta eskudantziak eraginkortasunez gauzatzeko behar diren jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak autonomia-erkidego osoan homogeneoki eskainiko direla.

b) Gazte-politikak ebaluatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, erabat bermatuta toki-autonomiaren printzipioa, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta toki-erakundeen kudeaketa-ahalmenaren printzipioa (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera), bai eta lege honen eta berau garatzen duten arauen betetze-maila ebaluatzea ere.

c) Koordinazio-lanak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak orekaz garatzeko –halako eran non haietarako irispidean aukera-homogeneotasuna bermatuko baita–, gazte-politikarekin lotutako eragileen eta profesionalen prestakuntza bultzatzeko, eta esku-hartzearen arlo jakin batzuetan gazte-politikarekin bat egin dezaketen bestelako sistema eta politika publikoekin koordinazio-mekanismoak ezartzeko.

d) Gazteriaren Euskal Sistemaren ordezkari izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan eta erkidegotik kanpo.

e) Gazteriaren arloko zerbitzuak eskainiko dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatutzat aitortua izateko bete behar diren betekizunak eta gutxieneko baldintzak ezartzea.

f) Berariaz gazteei zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduak antolatzea. Horretarako, zerbitzuak eta ekipamenduak ireki, aldatu, jardunean jarri eta ixteko baldintzak eta langileen gaikuntza arautuko ditu, eta onespentak, itunak eta ikuskaritza –goi-ikuskaritza barne– egiteko arauak ezarriko. Erabat bermatu beharko dira toki-autonomiaren printzipioa, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta toki-erakundeen kudeaketa-ahalmenaren printzipioa (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera).

g) Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorra sortzea, arautzea eta mantentzea. Han, gutxienez, lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoaren babesean onartu diren zerbitzu eta ekipamenduen onespentak, aldaketak, preskribatu gabeko zehapenak eta ixteak jasoko dira.

h) Gazte Elkarteen eta Gazteriari Zerbitzuak eskaintzen dizkieten Entitateen Zentsua sortzea, arautzea eta mantentzea, erregelamendu bidez garatuko denaren arabera.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio zuzeneko ekintzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu hauek hornitzea, 6. artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera:

(1) Gazteentzako informazioa, dokumentazioa eta orientabidea, eta emantzipatzeko laguntza.

(2) Nazioarteko jarduerak eta programak eta plaza-trukean dautzan programak; gazteentzako ostatu eta aterpetxeekin eta gazteei zuzenduriko turismoarekin zerikusia duten jarduerak, eta gazteen arteko trukeak, hala lurralde historikoen artean nola Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten direnak –bereziki, beste autonomia-erkidego batzuen artean eta nazioartean–. Gainera, erraztasunak emango ditu gazteek gai horiei buruzko informaziora, kontsultara eta aholkularitzara irispidea izan dezaten.

(3) Gazteriarekin zerikusia duten arloei buruzko prestakuntza eta gazteekin lan egiten duten langileen prestakuntza, eta lurraldez gaindiko diplomak egitea.

(4) Eusko Jaurlaritzako organo eskudunarekin elkarlanean aritzea, gazteen ekintzailtza sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

(5) Dirulaguntzak ematea lurraldez gaindiko eremuan edo nazioartean berariaz Euskal Autonomia Erkidegoko gazteentzat programak eta jarduerak garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatuei; dirulaguntzak ematea lurraldeen, erkidegoen eta herrialdeen artean gazteak mugitu daitezzen sustatzeko eta aterpetxeak bultzatzeko, eta laguntzak ematea EAEko gazteek nazioarteko programetan parte hartzeko.

j) Gazteriaren Euskal Sistemaren egitekoak sustatzea.

k) Gazteen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

l) Entitate publiko eta pribatuak ikuskatzea –goi-ikuskaritza barne–, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzeneko ekintzaren eskumenari lotuta dagoen zehatzeko ahala egikaritzea, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotzen den moduan.

m) Lege honek eta berau garatzeko araudiak agindutako beste edozein eskudantzia.

8. artikulua.- Foru-administrazioen eskudantziak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzeneko ekintza ezertan eragotzi gabe, lurralde historikoetako foru-organoei gazteriaren arloko arauak betearazteko duten eskumena eskudantzia hauetan gauzatzen da, kasuan kasuko lurralde-eremuaren barruan:

a) Gazte-politikaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa gauzatzea kasuan kasuko lurralde-eremuan, Gazteriaren arloko Euskal Estrategian ezarritakoari jarraituz.

b) Gazteentzako informazio-zerbitzuak ofizialki onestea.

c) Haur- eta gazte-taldeen ostatu-hartze eta egonaldietarako aterpetxeak eta instalazioak ofizialki onestea.

d) Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak izendapen ofizialez onartzea, bai eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begiraleak eta zuzendariak trebatzeko moduluak ere; horrez gainera, lurraldez gaindikoak ez diren diplomak egitea ere badagokie.

e) Berariaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak sortzea, mantentzea eta kudeatzea, baldin eta kudeaketa hori ez bazaio esleitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari edo toki-entitateei lege honen bidez edo berau garatzeko beste arau batzuen bidez.

f) Lurralde historikoko gazteen ekintzaitza sustatze aldera, organo eskudunarekin elkarlanean aritzea.

g) Gazteen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea kasuan kasuko lurralde-eremuan.

h) Kasuan kasuko lurralde-eremuaren barruan, lurralde historikoko gazteentzat berariazko jardunak garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatuei dirulaguntzak ematea.

i) Kasuan kasuko jardunaren lurralde-eremuko prestazio eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua ematea, eta informazio hori erregelamendu bidez zehaztuko diren eguneratze-aldizkakotasunera eta Gazteriaren Euskal Sistemako datuen ezaugarrietara egokitzea.

j) Lege honetan eta berau garatzeko arauetan definituta dauden gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak ikuskatzea eta kontrolatzea, beren eskumenen esparrukoak direnean.

k) Beren eskumen-esparruan zehatzeko ahala egikaritzea, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotzen den moduan.

l) Lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotako beste edozein eginkizun, edo beren eskumen-esparruaren baitan esleitutakoak.

9. artikulua.- Toki-administrazioaren eskudantziak.

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei dagokie –bakarka, mankomunitateen bidez edo udalerrria baino lurralde-eremu handiagoko erakundeen bidez edo lege honen ondorioetarako eratuko direnen bidez– eskudantzia hauek betetzea:

a) Gazte-politikaren eremuko plangintza, antolaketa eta kudeaketa, lege honen 2. eta 3. artikuluetan definitu den bezala, hurrengo apartatuetan adieraziko diren eskudantziak

barne, eta betiere Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

b) Gazteriaren arloko arauen antolamendua, beren eremuaren barruan.

c) Gazteriaren arloko zeharkako politika koordinatzea erakundearen sailen artean.

d) Berariaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak sortzea, mantentzea eta kudeatzea beren eremuaren barruan, baldin eta kudeaketa hori ez bazaio esleitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari edo foru-administrazioei lege honen bidez edo berau garatzeko beste arau batzuen bidez.

e) Kasuan kasuko jardunaren lurralde-eremuko prestazio eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua ematea, eta informazio hori erregelamendu bidez zehaztuko diren eguneratze-aldizkakotasunera eta Gazteriaren Euskal Sistemako datuen ezaugarrietara egokitzea.

f) Gizarte-ekimenarekin parte hartzeko bideak ezartzea eta gazteen eta gazte-elkarteen partaidetza bultzatzea toki-eremuan.

g) Lege honetan eta berau garatzeko arauetan definituta dauden gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak ikuskatzea eta kontrolatzea, beren eskumenen esparrukoak direnean.

h) Beren eskumen-esparruan zehatzeko ahala egikaritzea, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotzen den moduan.

i) Lege honetan eta berau garatzeko arauetan jasotako beste edozein eginkizun, eta araudi espezifikoaren bidez agindutako bestelako eskudantziak.

II. TITULUA

GAZTE-POLITIKA GARATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK

I. KAPITULUA

GAZTERIAREN EUSKAL SISTEMA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

10. artikulua.- Gazteriaren Euskal Sistemaren definizioa.

1.- Gazteriaren Euskal Sistema erantzukizun publikoko jardun eta egituren multzo antolatu eta egonkorra da –partaidetza soziala izan dezakete, eta titulartasun publiko zein pribatukoak izan–, eta zeharkako esku-hartzeez eta berariaz haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduez osatua dago. Honako hauek lortzea da sistemaren helburua:

a) Gazteen premiak detektatzea.

b) Gazte izateagatik dagozkien eskubide guztiak egikaritzea.

c) Gazteen autonomiari eta emantzipazioari bidea ematea.

d) Gazteen bizi-kalitatea hobetzea.

e) Haurren eta gazteen sustapena, eta haurrak, nerabeak eta gazteak sozialki eta kulturalki garatzea, bai norbanako gisa, bai talde gisa.

f) Gazteen partaidetza.

2.- Lege honen ondorioetarako, Gazteriaren Euskal Sistemaren zuzeneko eskaintzaren hartzaile dira lege honen 2. eta 3. artikuluetan definituta dauden gazteak. Laguntza-zerbitzuen hartzaileak, aldiz, hauek dira nagusiki: gazteekin profesionalki edo ez-profesionalki lan egiten duten pertsonak; gazteriaren arloan erantzukizun politikoak dituzten pertsonak, eta gazte-elkarteetako kideak.

11. artikulua.- Gazteriaren Euskal Sistemaren egitura.

1.- Berariaz gazteei zuzenduta dauden jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak eta zeharkako gazte-politikak –Gazteriaren Euskal Sistema osatzen dutenak– toki- eta foru-mailan eta autonomia-erkidegoaren mailan egituratuko dira.

2.- Berariaz gazteei zuzenduta dauden titulartasun publikoko zein pribatuko jarduera, zerbitzu eta ekipamendu guztiak eta zeharkako gazte-politikak –Gazteriaren Euskal Sistema osatzen dutenak– EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren bitartez koordinatuko dira, sistemaren kohesioa eta antolamendu eraginkorra bermatzeko eta, erantzukizun publikoari men eginez, haren batasuna ziurtatzeko.

3.- Gazteriaren Euskal Sistemaren jardunak koordinatu egin behar dira antzeko edo osagarritzeko beste sistema eta politika publikoek zuzenean edo zeharka EAEko gazteei zuzenduta egiten dituzten jardunekin.

12. artikulua.- Gazteriaren Euskal Sistemaren jardun-arloak.

Gazteriaren Euskal Sistemaren jardun-arloan zerbitzu hauek daude:

a) Zuzenean eskaintzeko zerbitzuak:

- (1) Informazioa, dokumentazioa, orientabidea eta akonpainamendua.
- (2) Aisia hezigarria eta hezkuntza ez-formala.
- (3) Adierazpen- eta partaidetza-bideak.
- (4) Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntza.
- (5) Gazteen enplegurako laguntza.
- (6) Mugikortasuna, ostaturia eta etxebizitzaren bilaketa.

b) Laguntza-zerbitzuak:

- (1) Gazte-politikaren sustapena eta koordinazioa.
- (2) Azterlanak eta dokumentazioa.
- (3) Gazteekin profesionalki edo ez-profesionalki lan egiten duten pertsonen, gazteriaren arloan erantzukizun politikoak dituzten pertsonen eta gazte-elkarteetako kideen prestakuntza.
- (4) Aholkularitza eta kontsultoretza, aholkularitzako senior-boluntarioria barne.
- (5) Laguntza-baliabideak.

13. artikulua.- Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa.

1.- Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoa zera da: EAEko administrazio publikoek lege honen 2. eta 3. artikuluetan ageri diren hartzaileei eskaintzen dizkieten eta aurreko artikuluan jasota dauden zerbitzuak identifikatzeko balio duen tresna.

2.- Zerbitzu hauek jasoko dira katalogoan, legean araututakoaren arabera:

- a) Haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako baliabideen eta jarduera soziokulturalen eskaintza eta topagune diren espazioak.
- b) Gazteentzako informazioa, dokumentazioa, orientabidea eta akonpainamendua.
- c) Haur- eta gazte-taldeentzako ostatu-hartze eta egonaldiak.
- d) Gazteen prestakuntza eta gazteekin lan egiten duten langileen prestakuntza.

14. artikulua.- Gazte-politiken arloko profesionalak.

1.- Gazte-politikak gauzatzen dira gazteentzako jarduera, zerbitzu edo ekipamenduetan lan egiten duten pertsonen nahiz zeharkako politikak bultzatzen edo gazteekin lotutako sektore publiko edo pribaturen batean lan egiten duten pertsonen lan ordainduaren edo ordaindugabearen bitartez.

2.- Gazte-politiken arloko profesional guztiek eta halako politikekin zerikusia dutenek gaikuntza espezifiko izango dute, lege honetan eta aplikatu behar den gainerako araudian araututakoaren arabera.

2. ATALA

GAZTERIAREN ARLOKO ZEHARKAKO POLITIKA SUSTATZEKO TRESNAK ETA NEURRIAK

15. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1.- Gazteengan eragin zuzena duten arauak, planak eta programak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak prestatu eta aplikatzean, EAEko administrazio publikoek modu aktiboan izango dute kontuan gazteen autonomia eta emantzipazioa lortzearen helburua.

2.- Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, EAEko administrazio publikoen mende edo horiei lotuta dauden sail, organismo autonomo eta erakunde publikoek lege honetan ezarritakoari jarraitu behar diote. Nolanahi ere, foru- eta toki-erakundeek, beren eskumenak egikaritzuz eta beren arauetan dauden berezitasun formal eta materialak aplikatuz, artikulutan ezarritakoa beren antolakuntza-beharretara eta behar funtzionaletara egokitu ahal izango dute.

3.- Lege honi jarraikiz gazteen autonomia eta emantzipazioa sustatzeko neurriak ezartzean, kontuan hartu behar dira 5. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak.

16. artikulua.- Arau eta plan sektorialen eragina.

1.- Gazteengan zuzeneko eragina duten Eusko Jaurlaritzaren lege-aurreproiektuekin, erregelamendu-proiektuekin eta planekin batera aurkeztu behar diren memorietan, araudiak edo planak gazteengan zer-nolako eragina izango duen adierazi behar da.

2.- Bestalde, Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak jarraipena egingo die aurreko apartatuan adierazitako legeen, erregelamenduen eta planen taxutze-, gauzate- eta ebaluazio-lanei, lege honen eta beronen garapenaren edukia betetzen dela bermatzeko egokitzat jotzen dituen orientabideak eta alegazioak egite aldera. Horretarako, eskuragarri dauden mekanismoak eta tresnak erabiliko ditu.

17. artikulua.- Gazteriaren arloko Euskal Estrategia.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartuko du Gazteriaren arloko Euskal Estrategia, non bilduko baitira, koordinatuta eta globalki, EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduera gidatuko duten esku-hartze ildoak eta gidalerroak, izaera orokorrekoak eta administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatuko dutenak. Gero, Eusko Legebiltzarrari emango dio horren berri, bai eta strategiaren ebaluazioaren edo betetze-mailaren berri ere, urteko memoria bidalita.

2.- Gazteriaren arloko Euskal Estrategia prestatzeko lanetan, udalerriek, aldundiek eta gazteek parte hartuko dute, koordinatuta, eta Erakundearteko Koordinazio Organoak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak txostena egingo dute.

3. Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak gazteen emantzipazioa erraztuko duten neurri eta helburu zehatz batzuk izango ditu, bat etorriko direnak hurrengo artikuluan jasota dauden esku-hartze ildoekin.

18. artikulua.- Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren esku-hartze ildoak.

Gazteriaren arloko Euskal Estrategiak, honako esku-hartze ildo hauen artetik, lehenetasuna emango die aldian-aldian diagnostikatzen diren eskari eta premiei ondoen erantzuten dieten ildoei:

a) Gazteak eta enplegua.

1) EAEko administrazio publikoek programa espezifikoak eta ekintza zehatzak sustatuko dituzte, gazteak laneratu daitezela erraztu eta bultzatzeko eta gazteek kalitatezko enplegua eskura dezatela sustatzeko; horrez gainera, besteren konturako kontratuen lan-egonkortasunaren alde egingo dute, gazteen lan-eskubideak, osasuna eta prebentzioa bermatuko dituzte, eta kontratazioaren arloko iruzurrak desagerraraziko. Orobat, gazteek lehenengo lanpostua lortzea eta lan-esperientzia hartzea sustatuko dute.

2) Besteak beste, prestakuntzako eta praktiketako programa espezifikoak bultzatzen jarraituko da, eta Gizarte Segurantzaren kuotetarako zerga-pizgarriak eta hobariak ematen ere bai, gazteen kontratazioa bultzatzeko sustapen-neurri gisa.

3) Etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza bultzatuko dira, bereziki hezkuntzaren aldetik gabeziaren bat duten gazteei edo ikasketak utzi dituztenei begira; horretarako, prestakuntzaren arloko neurriak hartuko dira, halako gazteek lanpostu egoki bat lor dezaten.

4) Gazteen ekintzailtza bultzatuko da; besteak beste, autoenplegua eta gazteen enpresa-ekimena.

b) Gazteak eta hezkuntza.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gazteen aldeko hezkuntza- eta prestakuntza-politikak planifikatzeko eta gauzatzeko garaian, hezkuntza formala eta ez-formala laguntzeko ekintzak koordinatuko ditu. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ikaskuntza eta erabilera bermatuko ditu, bai eta beste hizkuntza batzuen ere, gure autonomia-erkidegoko gazteek hezkuntza eleaniztuna izan dezaten.

2) Arreta berezia emango zaio balio hauetan hezteari: bakea; gatazkak konpontzeko modu baketsuak; giza eskubideen errespetua; elkartasuna; erantzukizuna; aukera-berdintasuna; hezkidetzak; bizi-ohitura osasungarriak;

jasangarritasuna, eta jokaera xenofoboan, arrazisten eta bestelako edozein diskriminazio motaren prebentzioa –arrazaz, sexua, orientazio sexuala edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial oinarrian dituenak–. Hartara, gazteengan elkartasuna eta bestelakoa denarekiko errespetua sustatuko dira, bai eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa ere.

3) Gazteek atzerrian prestakuntza jasotzea sustatuko da, eta EAERA itzultzeko neurri zehatzak ere bultzatuko dira.

c) Gazteak eta etxebizitza.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteen autonomia pertsonalerako prozesuak erraztuko ditu, gazteek etxebizitza duina errazago eskuratzeko politika aktiboa garatuta. Horretarako, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea garatzeko egingo diren etxebizitza-politiken barruan, gazteen zailtasun bereziak –ekonomikoak, nagusiki– arintzeko neurriak abiaraziko ditu, merkatu librean etxebizitza eskuratzeko eskaintzen dituenak baino baldintza hobeak eskainiko dizkie gazteei, eta haientzat espezifikoak diren alokairu-neurriak bultzatuko ditu.

2) Lege honen 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, gazteek etxebizitza errazago eskuratzeko programa eta planei dagokienez, gaztetzat hartuko dira etxebizitza-planetan eta -programetan ezartzen diren adin-tarteetan kokatuta dauden pertsonak.

d) Gazteak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna.

1) EAEko administrazio publikoek gazte-politiketan genero-ikuspegia txertatzea sustatuko dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen printzipio orokorrekin bat.

2) EAEko administrazio publikoek gazteek prestakuntza jasotzea sustatuko dute, haien garapen integralean oinarrituta eta sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuta. Horretarako, hezkidetzak bultzatuko dute ikastetxeetan.

3) EAEko administrazio publikoek hainbat neurri bultzatuko dituzte, gazteen artean indarkeria sexista gerta ez dadin.

4) EAEko administrazio publikoek lan egingo dute, gazteak eraldaketarako agente izan daitezen, gizarte berdinezaleagoa eraikitzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe.

e) Gazteak eta sexu- eta genero-aniztasuna.

EAEko administrazio publikoek gazteei zuzendutako jarduketetan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea sustatuko dute, bat etorritik Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren

18ko 4/2005 Legearen 3. artikuluko 3. puntuan aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuari buruz esaten denarekin.

f) Gazteak eta gizarte-zerbitzuak.

EAEko administrazio publikoek gizarte-zerbitzuen politikak gazteen premien arabera egokitzea bultzatuko dute, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gazte guztien autonomia pertsonalari eta komunitate-integrazioari ematen dion laguntza sendotuko dute.

g) Gazteak eta kultura.

EAEko administrazio publikoek beharrezkoak diren neurri zehatzak hartuko dituzte, gazteek aukera-berdintasunez kulturara irispidea izan dezaten, eta, gainera, gazteen artean kultura-arloko zabalkundea, sorkuntza eta partaidetza bultzatuko dituzte.

h) Gazteak eta kirola.

Gazteek kirola aukera-berdintasunez egitea sustatuko dute EAEko administrazio publikoek, beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin elkarlanean; izan ere, gazteek ohitura osasungarriak hartzeko sentsibilizazio-lanetan lagundu dezake kirolak, eta, gainera, balioak sustatzen ditu.

i) Gazteak eta aisialdia.

Aintzat hartuta aisialdia aprobetxatzea funtsezkoa dela nortasuna garatzeko eta, beraz, gazteak hezteko eta prestatzeko erabili behar dela, EAEko administrazio publikoek neurri zehatzak hartuko dituzte, gazteei eskaintzen zaizkien aisialdiko jardueren hedadura eta kalitatea handitzeko asmoz.

j) Gazteak, osasuna eta prebentzioa.

1) EAEko administrazio publikoek gazteen osasuna eta ohitura osasungarriak sustatuko dituzte, berariaz gazteei zuzenduta egongo diren programak, proiektuak eta kanpainak eginez. Arreta berezia ipiniko da alderdi hauetan: osasun mentala eta emozionala; sexualitaterako heziketa; droga-mendekotasunen, beste adikzio batzuen, elikadura-nahasmenduen, transmisio sexualeko gaixotasunen eta nahi gabeko haurduntzen prebentzioa eta tratamendua, eta trafiko-istripuen prebentzioa.

2) Laneko ezbehar-tasa murrizteko eta lan-osasuna babesteko eta hobetzeko neurriak ere bultzatuko dira. Gainera, lan-osasunaren zaintza genero-ikuspegia txertatuz egingo da.

k) Gazteak eta ingurumena.

1) EAEko administrazio publikoek gazteei eta ingurumenari begira garatzen dituzten politiken eta jardunen helburua gazteen artean natura-ingurunea

babesteko eta hartaz erantzukizunez gozatzeko heziketa eta sentsibilizazioa zabaltzea izango da. Hartara, natura-baliabideak modu jasangarrian erabiltzea lortuko da, belaunaldien arteko elkartasuna sustatuko da, eta gazteak ingurumenarekin engaiatzea erdietsiko.

2) Era berean, gazteen parte-hartzea sustatuko da tokian tokiko edo eskualdeko jasangarritasun-planetan eta partaidetza-organo eta -foroetan.

l) Gazteak eta kontsumoa.

1) EAEko administrazio publikoek gazteen prestakuntza sustatuko dute, informazio-kanpainen edo programa espezifikoaren bitartez, kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak ezagutu eta arduraz, ikuspegi kritikoz eta elkartasunez erabil ditzaten.

2) Era berean, arrazoizko kontsumoaren kultura indartuko da, eta gazteek kontsumo jasangarriaren eta bidezko merkataritzaren sareetan parte hartzea sustatuko da.

m) Gazteak eta informazioaren gizartea.

1) EAEko administrazio publikoek gazteek informazioaren eta komunikazioaren teknologietara irispidea izatea sustatuko dute; arreta berezia ipiniko diote baliabide teknologikoak aukera-berdintasunez eskuragarri egoteari.

2) Halaber, gazteek giza eskubideen, bakearen, askatasunaren, berdintasunaren, tolerantziaren, elkartasunaren eta jasangarritasunaren defentsa sustatzen duten Interneteko sare sozialetan parte hartzea bultzatuko da, eta sare sozialetan egiten diren jarduera desagokiak edo delitu-jarduerak zainduko dira.

3) Gainera, gazteen ekimena, sormena eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien sormenezko erabilera berritzailea sustatuko dira, gazteak informazioaren gizartearen benetako partaide izan daitezen.

n) Gazteak eta boluntarioritza.

Gazteek beren intereseko gaietan boluntario gisa lan egitea sustatuko dute EAEko administrazio publikoek.

o) Gazteak, landa-ingurunea eta kostaldeko ingurunea.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak neurriak planifikatu eta garatuko ditu, gazteak landa-ingurunean eta kostaldeko ingurunean geratu edo finkatu daitezen; arreta berezia emango zaie gazte nekazariei, abeltzainei, akuikultura-ekoizleei, arrantzaleei eta beste edozein sektoretako gazte ekintzaileei. Horrez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatuko du ingurune horretako gazteek eta hiriko gazteek aukera-berdintasunez izango dutela irispidea baliabide sozial, ekonomiko eta kulturaletara eta prestakuntzako baliabideetara.

2) Lege honen 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, landa-inguruneko eta kostaldeko inguruneko programa eta planei dagokienez, gaztetzat hartuko dira landa-inguruneko eta kostaldeko inguruneko programa eta planetan ezartzen diren adin-tarteetan kokatuta dauden pertsonak.

p) Gazteak eta mugikortasuna.

EAEko administrazio publikoek EAEko gazteen aukera-berdintasuna bermatuko dute, beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetan ikasketak, ikastaroak eta jarduerak burutzeko programak garatuko dituzte, eta mugikortasuna bultzatuko dute. Hartara, EAEko gazteek aniztasuna eta kultura-aberastasuna ezagutzea sustatuko da, haien prestakuntza eta laneratzea erraztuko dira, eta hainbat balio eta giza eskubideekiko errespetua sustatuko da.

q) Gazteak eta elkarbizitza.

EAEko administrazio publikoek neurri zehatzak hartuko dituzte, gazte guztien gizarteratzea eta laneratzea errazteko eta elkarbizitza egokia bultzatzeko.

r) Gazteak, autonomia eta erantzunkidetasuna.

EAEko administrazio publikoek bultzatuko dute pertsona guztiek, sexua gorabehera, eguneroko bizitzak berekin dakartzan zereginetan (hala nola etxeko lanetan eta norberaren nahiz besteen zaintzan) parte hartzea eta erantzukizuna hartzea.

s) Atzerrian dauden gazte euskaldunak.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak laguntza emango du EAEko gazteen egoerari buruzko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteei begira egiten dituen planei eta politikei buruzko informazio- eta erreferentzia-guneak egoteko atzerriko euskal etxeetan, atzerrian bizi diren gazteek informazio zehatza eta gaurkotua izan dezaten.

2) Halaber, atzerriko euskal etxeetako gazteekin elkarlanean aritzeko eta trukeak egiteko bideak sustatuko dira.

3) EAEra itzuli nahi duten gazteei horretarako laguntza emango zaie.

19. artikulua.- Gazte-politikaren plangintza eta ebaluazioa erkidego-, foru- eta toki-administrazioetan.

Modu koordinatuan eta Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren orientabide orokorrei jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta foru- eta toki-administrazioek, dituzten autoantolaketarako ahalak erabiliz eta autonomia osoz, beren lurralde-eremuan eta legegintzaldiari dagokion aldian gauzatu beharko dute gazteen arloko plangintza egokia, eta, gobernu-maila bakoitzak zehazten duenaren arabera, erregelamenduz ezartzen diren irizpideen arabera ebaluatuko dute; gainera, hala badagokio, urteko memoria bat egingo dute, eta publiko egingo dira horren emaitzak.

20. artikulua.- Urteko plangintza eta ebaluazioa erkidego-, foru- eta toki-administrazioetan.

1.- Erkidego-, foru- eta toki-administrazioetako sail bakoitzak, urtero, banaka zein mankomunitateetan elkartuta, bere jarduera-programak landuko ditu, eta, aurreko artikuluetan jasotzen den plangintzaren garapenari jarraikiz, urtero programatzen dituen neurriak betetzeko erabiliko dituen diru-baliabideak zehaztuko ditu. Aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu eta gero, administrazio publiko bakoitzak, dituen autoantolaketarako ahalak erabiliz, programa horiek ebaluatuko ditu, hala badagokio erregelamendu bidez ezarriko diren irizpide orokorrei jarraikiz.

2.- Eusko Jaurlaritzari dagokionez, gazteriaren arloko sail eskudunak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean egingo diren ekintzei buruz beharrezkoak diren datuak –aurreikusitako diru-baliabideak barne– bilduko ditu beste sailetatik; gero, ekitaldia bukatutakoan, ekintzen betetze-mailaren berri emango dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordeari.

3.- Foru- eta toki-administrazioei dagokienez, erakunde bakoitzak arautuko ditu bere lurralde-eremuan zeharkako politika koordinatzeko eta bultzatzeko ezarriko dituen mekanismoak.

3. ATALA

GAZTE-SUSTAPENENKO TRESNAK ETA NEURRIAK

21. artikulua.- Haur eta gazteen aisialdi-jarduerak.

1.- Haur eta gazteen aisialdi-jardueratzat hartuko dira lege honen 2. eta 3. artikuluetan aipatzen diren pertsonen talde gisa egiten dituzten jarduerak, baldin eta haien helburua prestakuntza ematea edo aisialdia modu antolatuan betetzea bada, familia-izaerakoak ez badira eta ikastetxeek antolatuta ez badaude.

2.- Erregelamenduak garatuz zehaztuko dira jarduerak egiteko leku egokiak, segurtasun-neurriak, jarduerak behar bezala egiteko bete behar diren baldintzak, eta langile arduradunen profila, gutxieneko kopurua, prestakuntza, titulazioa eta jarduerari eskainiko dioten dedikazioa.

3. - Haur eta gazteen aisialdi-jarduerak egiteko, aseguru bat eduki behar da, pertsonen eragindako kalteen erantzukizun zibila estaliko duena.

4.- Jardueraren arduradunaren zuzeneko betebeharrak dira, gutxienez, honako hauek:

a) Jarduerari aplikatu behar zaio araudia betetzea eta betearaztea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko organismo publikoetako langileei ikuskatze-lana erraztea.

c) Jardueretan parte hartzen dutenen osotasun fisikoa bermatzea, horretarako egokiak diren neurriak hartuz.

d) Jarduerako parte-hartzaileen kopurua aintzat hartuta, behar beste langile arduradun eta laguntzako langile izatea, bai eta beharrezkoak diren baliabide materialak ere.

5.- Haur eta gazteen aisialdi-jardueretan 18 urtetik beherakoek parte hartzen badute, arduradun-talde bat egongo da, eta taldekideen gutxieneko kopurua eta titulazioa erregelamendu bidez arautuko dira.

6.- Emantzipatu gabeko adingabeek beren guraso-ahala edo tutoretza duen pertsona baten laguntzarik gabe haur eta gazteen aisialdi-jardueretan parte hartu nahi badute, nahitaez aurkeztu beharko dute guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren berariazko idatzizko baimena.

7.- Gaua familiaren egoitzatik kanpo pasatzea berekin dakarten jardueretan 18 urtetik beherako adingabeek parte hartuz gero, horren berri eman behar zaio aurretiaz jarduera egingo den lurraldeko foru-aldundiari edo, bestela, Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumenak dituen sailari, baldin eta jarduera lurralde batean baino gehiagotan egitekoa bada, erregelamenduak dioenaren arabera. Jakinarazpen horretan, gutxienez, datu hauek jasoko dira: jardueraz arduratuko diren pertsonen identifikazio-datuak eta titulazioak, parte-hartzaile kopurua, haietatik zaharrenaren eta gazteenaren adina, jardueraren datak eta iraupena, gaua non pasako den, lokalizazioa zein izango den, eta jarduera behar bezala hasteko eta garatzeko kontuan hartu behar den beste edozein datu garrantzitsu. Aire zabalean kanpatu nahi izanez gero, udalak edo administrazio-batzarrak lekuaren baldintzei buruzko aldeko txostena eman beharko du, eta lurraren jabeak bere baimena –norbanako bat edo entitate bat izan– .

22. artikulua.- Berariaz gazteei zuzenduta dauden zerbitzuak eta ekipamenduak.

1.- Berariaz gazteei zuzendutako zerbitzutzat jotzen dira erregulariki eta modu jarraituan egiten diren jarduketa hauek:

a) Hurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako baliabideen eta jarduera soziokulturalen eskaintza eta topagune diren espazioak.

b) Gazteentzako informazioa, dokumentazioa, orientabidea eta akonpainamendua.

c) Haur- eta gazte-taldeentzako ostatu-hartze eta egonaldiak.

d) Gazteen prestakuntza eta gazteekin lan egiten duten langileen prestakuntza.

2.- Gazteentzako ekipamendua espazio fisiko bat da, horniturik dagoena gazteei jarduerak edo zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturez eta baliabideez.

23. artikulua- Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduen onespén ofiziala.

1.- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolen eta dagozkien prestakuntza-moduluen onespén salbu, titulartasun publiko zein pribatuko zerbitzu edo ekipamendu batek gazteentzako zerbitzu edo ekipamenduen onespén ofiziala lortu nahi badu, erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea bete beharko du, erregelamendu bidez ezarriko denaren arabera, hargatik eragotzi gabe osasunari, elikadurari, segurtasunari, ingurumenari, irispideari eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzko araudi orokorrean eta aplikatzekoa den beste edozein araudi sektorialetan aurreikusitako baldintzak.

2.- Onespén ofiziala lortzeko, gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduek indarrean dagoen araudi sektorialaren arabera aplikatu behar zaizkien lizentziak, baimenak, komunikazioak edo jakinarazpenak eskuratu beharko dituzte aurretiaz, eta, horrez gainera, erregelamendu bidez ezarritako betekizunak bete, gutxienez alderdi hauei dagokienez: espazio fisikoaren baldintza materialak eta segurtasun-neurriak; zerbitzu-prestazioaren funtzionamendua; barne-erregelamendua; zerbitzuen prezioak; zerbitzuaren edo ekipamenduaren izendapen ofiziala eta bereizgarria, iragarkiak eta jendaurrean jarri behar den bestelako dokumentazioa; funtzionamendurako behar diren langileen profila, gutxienerako kopurua, titulazioa eta dedikazioa; zerbitzuaren parte-hartzaileen edo erabiltzaileen ezaugarriak, eskubideak eta betebeharrak, eta erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.

3.- Halako zerbitzu eta ekipamenduak diseinatzean, aintzat hartuko dira gizonen eta emakumeen premia ezberdinak, eta, hala badagokio, diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak desagerrarazten lagunduko da.

4.- Onespén ofiziala lortu duten zerbitzu eta ekipamenduak Gazteentzako Ekipamenduen Sarean sartuko dira, eta Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean inskribatuko –27. artikuluan jaso–.

24. artikulua- Gazteentzako informazio- eta dokumentazio-zerbitzuak.

1.- Gazteentzako informazio- eta dokumentazio-zerbitzu dira gazteei zuzendutako jarduerak –informaziokoak, zabalkundekoak eta aholkularitzakoak– egiteko helburua duten eta ofizialki onetsita dauden zentro publiko eta pribatuak.

2.- Gazteentzako informazio-bulegoek, 23. artikuluan adierazitako betekizunez gain, honako hauek ere bete behar dituzte:

a) Xede horretarako bakarrik erabiliko den lokal bat izatea.

b) Emango dituzten funtzioei arreta egiteko moduko langileak eta baliabide materialak izatea.

3.- Gazteentzako informazio-guneek espazio propio eta bereizi bat izan behar dute, gutxienez.

4.- Ofizialki onetsitako gazteentzako informazio- eta dokumentazio-zerbitzu guztiek osatuko dute Euskadiko Gazte Informazio Sarea.

5.- Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Zentro Koordinatzaileari egokituko zaio zerbitzu hauen koordinazioa: zuzenean zentroaren mende dauden Euskadiko gazteentzako informazio- eta dokumentazio-zerbitzuena, eta hari lankidetzaz-aitzarmenen bidez atxikitako zerbitzuena.

25. artikulua.- Gazte-aterpetxeak eta haur- eta gazte-taldeen egonaldietarako instalazioak.

1.- Gazte-aterpetxetzat hartuko da guneko edo dependentzia finko bat, urtaroka edo etengabe ostaturako erabiltzen dena, non haur- eta gazte-taldeek bertan gutxienez gau bat eta inoiz ez jarraian hilabete baino gehiago igaro baitezakete, aisialdi zein kultur jarduerak burutzeko, edo aisialdi, laguntza edo eskolako prestakuntza osatzeko jardueretarako. Kasu jakin batzuetan, beste pertsona eta talde batzuek ere erabil ditzakete iragaitzaz, egonaldiak egiteko edo jardueraren bat egiteko.

2.- Ofizialki onetsitako instalazio orok erregistro-liburu bat izan beharko du, eta bertan inskribatuko dira erabiltzaile guztiak iristen direnean. Taldearen eta taldeko arduradunaren identifikazio-datuak jasoko dira bertan, eta taldea osatzen dutenen zerrenda erantsiko da. Erabilera indibiduala izanez gero, identifikazioko datu pertsonalak apuntatuko dira.

3.- Gazte-aterpetxe gisa edo haur- eta gazte-taldeen egonaldietarako instalazio gisa ofizialki onetsita dauden instalazio guztiek osatuko dute Haur- eta gazte-taldeentzako Euskadiko aterpetxe eta instalazio Sarea.

26. artikulua.- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak.

1.- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskola dira aisialdiaren eremuko titulazio ofiziala duten prestakuntza-moduluak emateko onetsita dauden entitateak.

2.- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak abian jarri aurretik baimendu behar dira, eta gauza bera gertatuko da aisialdiaren eremuko titulazio ofiziala duten prestakuntza-moduluen kasuan. Aurretiazko baimenaren ordean erantzukizunpeko adierazpenaren prozedura erabili ahal izango da, erregelamendu bidez hala ezarriz gero.

3.- Eskolek, funtzionatzeko, horretarako eman den araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, 23. artikuluan ezarritakoaren arabera; bereziki informazio-, prestakuntza-, administrazio- eta ebaluazio-egitekoei dagozkien baldintzak. Gainera, jarduera gehienak zein lurralde-eremutan egingo dituen, hor kokatuta egon beharko du eskolak.

4.- Erregelamendu-garapenaren bidez honako hauek ere ezarriko dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan emango diren titulazioak edo diplomak; emango diren prestakuntza-programak, mailak, modalitateak eta metodologia; ordu-kopurua eta aldizkakotasuna; prestakuntza-moduluetan sartzeko baldintzak; irakasleen klaustroaren osaera eta titulazioak; prestakuntza-modulu bakoitza ebaluatzeko irizpideak eta onesteko prozedura, eta haien ebaluazioa.

5.- Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskola gisa onespén ofiziala lortuz gero, prestakuntza-zentroak Euskadiko Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolen Sarean sartuta geratuko dira.

27. artikulua.- Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorra.

1.- Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorra sortzen da, non ofizioz inskribatuko baitira lege honetan araututako onespén ofiziala jaso duten zerbitzu eta ekipamendu publiko eta pribatuak.

2. Erregistro Orokorrean, gutxienez, informazio hau jaso behar da onespén ofiziala jaso duten zerbitzu eta ekipamenduei buruz: onespén ofizialaren data; jardueraren azalpen zehatza; aldaketarako arrazoiak; preskribatu gabe dauden zehapenak, eta gazteentzako zerbitzua edo ekipamendua ixteko arrazoiak.

28. artikulua.- Gazteen prestakuntzaren arloko diplomak egitea.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio gazteen prestakuntzako eta aisialdiko diplomak egitea.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gutxienez heziketa ez-formaleko diploma hauek egin ahal izango ditu, erregelamendu bidez garatuko den moduan: aisialdiko prestatzaileen prestakuntzako diplomak, aisialdiko jardueretakoak –haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begiraleen eta zuzendarien diplomak barne–, eta gazteentzako informaziokoak, zerbitzuetakoak eta instalazioetakoak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erregelamendu bidez ezarriko du zer baldintza bete behar dituzten prestakuntza-moduluak, espezialitateak eta bestelako prestakuntza-jarduerak egiten dituzten eskolek onetsiak izateko, betiere gazteriaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gazteriaren arloan eskumena duen sailaren bidez, beste autonomia-erkidego batzuekin akordioak sinatzea bultzatuko du, gazteen prestakuntzako eta aisialdiko diplomak elkarri aitortzeko; akordioak nazioartekoak ere izan daitezke.

29. artikulua.- Identifikazio-sistemak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen sailak identifikazio-mekanismo fisikoak edo birtualak garatuko ditu, bai nazioartekoak bai lurraldez gaindikoak, zeinei esker, besteak beste, erraztu egingo baita kultura-, kirol-, aisia-, kontsumo- eta garraio-zerbitzuetarako irispidea, gazteek hainbat abantaila izan ditzaten ondasunak, programak eta zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, hargatik eragotzi gabe beste erakunde edo entitate batzuek beren lurralde-eremuetan mekanismoak garatzea.

2.- Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak onesten dituen pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatuak garatuko dituzte gazteak identifikatzeko nazioarteko eta lurraldez gaindiko mekanismoak.

3. Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailarekin atxikitze-dokumentua sinatzen duten entitate publiko zein pribatuek gazteen aldeko jarduerak egiten badituzte, «Gazte-txartela / Carnet Joven» zerbitzuaren babesa baliatuz baldintza hobeetan eskaini ahal izango dituzte ondasunak eta zerbitzuak, aipatutako dokumentuan zehaztutako betekizun bereziekin. Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak ezarriko duen bereizgarriaren bidez identifikatuko dira entitate horiek.

III. TITULUA

GAZTEEN PARTAIDETZA ETA GIZARTE-EKIMENA

I. KAPITULUA

GAZTEEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO NEURRIAK

30. artikulua.- Partaidetza sustatzea.

1.- EAEko administrazio publikoek gazteen partaidetza sustatu behar dute, gazte-politikei uneko egoera sozial errealari dagokionez koherentzia emate aldera, erakundeen eta gazteen arteko elkarrizketa sustatze aldera, eta gazteen garapen indibidual eta soziala eta gizartearen berrikuntza bultzatze aldera, eta, prozesu horretan, berdintasuna bultzatu behar dute.

2.- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua aitortzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko baliozko solaskidetzat, hala xedatuta baitago Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko maiatzaren 27ko 6/1986 Legean.

3.- Gazte-politiken plangintza, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesu irekiak martxan jarriko direla bermatuko dute EAEko administrazio publikoek. Prozesu ireki horietan, gazteen iritziak –elkarrean daudenenak eta ez daudenenak– kontuan hartuko dira.

4.- EAEko administrazio publikoek herritarren partaidetzaren kultura bultzatuko dute gazteen artean, zuzenean zein zeharka, eta partaidetzan oinarrituriko metodologiei buruzko prestakuntza emango diete beren langileei, bai eta parte-hartzea praktikan jartzeko eta kasuan kasuko jardunaren lurralde-eremuko gazte-entitateekin eta pertsona fisikoekin koordinatuta lanean aritzeko beharrezkoak diren trebetasunez jabetzeko prestakuntza ere.

31. artikulua.- Gazteen partaidetzarako egituren funtzionamendua.

1.- Gazteria-kontseilu edo gazteen partaidetzarako egitura edo gune ororen funtzionamenduari dagokionez –edozein dela ere haren eremua–, erabakiak hartzeko

garaian, ahaleginak egingo dira gazte guztien –emakume zein gizon– eta desberdintasun-egoeran dauden gazteen iritziak eta premiak aintzat hartzeko.

2.- Gazteria-kontseilu edo gazteen partaidetzarako egitura edo gune orok, edozein dela ere haren eremua, hala entitateen nola elkarteetan dauden nahiz ez dauden gazteen partaidetza aktiboa sustatuko du, bereziki teknologia berriak erabilia.

3.- Kasu guztietan, gazteen partaidetzarako egitura horien osaeran, gizonen eta emakumeen presentzia parekidea sustatuko da.

32. artikulua.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.

1.- EAEko administrazio publikoek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea sustatuko dute gazteen partaidetza eta informazioa errazteko, eta, horretarako, aukera hauek emango dituzten webguneak baliatuko dituzte:

a) Administrazio-izapideak egin ahal izatea eta Administrazioarekin egin beharreko gestioak ahalik eta gehien erraztea.

b) Administrazioaren gardentasuna hobetzea, gazteriaren arloan sortzen den izaera publikoko informazio oro Gazte Informazio Sarean sartuta.

c) Sare telematikoen bidez administrazioen arteko harremana bultzatzea, herritarren onurarako.

d) Elkarteen sarea herritarren artean ezagutzera ematea.

2.- Baliabide teknologikoen erabilera orokortzen den neurrian, EAEko administrazio publikoek herritarrentzako sare informatikoak garatuko dituzte, gazteek aukera izan dezaten, gazte-gaietan, zerbitzuetako arduradunekin elkarreragiteko, eztabaidetan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko. Kasu guztietan, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatuko da.

3.- EAEko administrazio publikoek bereziki bultzatuko dute gazteek euskaraz egitea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituztenean.

33. artikulua.- Gazteen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko solaskidetza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari entzun beharko dio gazteriaren arazoekin eta interesekin zuzeneko zerikusia duen edozein xedapen onartu aurretik, hala ezarrita baitago Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko maiatzaren 27ko 6/1986 Legean eta geroko araugintza-garapenetan.

II. KAPITULUA

GIZARTE-EKIMENA, GAZTEEN BOLUNTARIOTZA ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA

34. artikulua.- Gizarte-ekimena.

1.- EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lankidetzeta-formulak ezar ditzakete gizarte-ekimenarekin, gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko beste batzuen baliabideekin.

2.- Gazteriaren arloan jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko beharrezkoa denean EAEko administrazio publikoek gizarte-ekimenarekin itunak egitea, lege honetan, beronen garapen-arauetan eta sektore publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutakoa bete beharko dute jarduera, zerbitzu eta ekipamendu horiek eskainiko dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatuek.

35. artikulua.- Gazteen boluntariotza.

1.- Gazteek boluntariotza-jardueretan parte hartzea sustatuko dute EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan.

2.- Gazteen boluntariotzarako baldintzak eta betekizunak erregelamendu bidez ezarriko dira.

36. artikulua.- Gazteen boluntariotza sustatzea.

Gazteen boluntariotza sustatu eta errazago egite aldera, EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan eta eskura dituzten aurrekontu-baliabideen arabera, honako jardun hauek sustatuko dituzte gutxienez:

a) Gazteen boluntariotza antolatua indartzeko neurriak hartzea.

b) Boluntariotzako gazte-entitateekin elkarlanean aritzea, gazteen boluntariotzako programak eta proiektuak gauzatzeko, garatzeko eta sustatzeko.

c) Gazteen boluntariotzari buruzko informazio-kanpainak antolatzea, eta boluntariotzak berekin dakartzan balioak zabaltzea.

d) Gazte boluntarioen lana garatzeko lagungarri izango diren araugintzako ekimenak abiaraztea, bereziki lan- eta zerga-arloetan.

e) Lege honen aplikazio-eremuaren barruan dauden gazte-entitateei informazioa, aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea.

f) Gazteen boluntariotzari buruzko ikerketak, azterlanak, argitalpenak eta web-orriak egitea, eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.

g) Ekimenak sustatzea, Europako eta nazioarteko boluntariotza-proiektuak bultzatzeko, lankidetzeta-sareak sortuko dituzten ekintza berritzaileak laguntzeko eta gazteak boluntariotzaren espirituaz heztera eta prestatzera bideratutako prozesu espezifikoak laguntzeko.

h) Elkartasunezko jarrerak sustatzea, lege honek arautzen dituen jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak gauzatzekoan boluntarioratzako ekintzak garatuta.

37. artikulua.- Garapenerako lankidetzak.

1.- Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean, garapenerako lankidetzak bultzatuko du gazteriaren arloan, premia bereziei jaramon eginez.

2.- Orobat, Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean, garapenerako hezkuntza sustatuko du, eta EAEn bizi diren gazteek, hiritar diren aldetik, garapenerako lankidetzari dagokionez beren gain har dezaketen konpromisoa bultzatuko du.

3.- Helburu horrekin ezartzen diren garapenerako lankidetzako programen bidez, lankidetzaren herrialde hartzaileetako biztanle gazteei zuzendutako proiektuak sustatuko dira. Hartara, programen helburuak eta lege honen xedeak koherenteak izango dira.

IV. TITULUA

ADMINISTRAZIO-ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA

38. artikulua.- EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa.

1.- EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa sortzen da kide anitzeko organo gisa, EAEko administrazio publikoen erakundearteko lankidetzak eta koordinazioa antolatzekeo gazteriaren arloan, eta EAEko administrazio publikoen gazte-politika integrala bultzatuko dela bermatzeko.

2.- EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailari atxikiko zaio, eta ez da egongo Administrazioaren egitura hierarkikoaren barruan.

3.- EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren eginkizunak, funtzionamendu-araubidean zehaztuko direnez gain, honako hauek izango dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren gazte-politika integralaren garapena eta ebaluazioa bultzatzea.

b) Gazteriaren arloko Euskal Estrategiaren edukiari eta lanketari buruz txostena idaztea.

c) Zeharkako gazte-politikak koordinatzea.

d) EAEko administrazio publikoek prestatutako gazteriaren arloko ekintzen plangintzari, programazioari eta betetze-mailari buruz txostena idaztea.

e) Gazteriaren Euskal Sistemaren barnean egonik berariaz gazteei zuzenduta dauden jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak koordinatzea, sistemaren kohesioa eta antolamendu eraginkorra bermatzeko eta, erantzukizun publikoari men eginez, haren batasuna ziurtatzeko.

f) Gazteriaren Euskal Sistemaren zerbitzu-katalogoari buruz nahitaezko txostena egitea; katalogoa ezartzeko eta eguneratzeko erabakietarako, ezinbestean izan beharko da betebeharrak esleitzen zaizkion administrazio publikoaren ordezkariaren aldeko botoa.

g) Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzako eskumen berriei buruz nahitaezko txostena idaztea, lege honen 6.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- Kide hauek izango ditu EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoak:

a) Lehendakari bat, edo hark eskuordetzen duen pertsona, zeina organoaren presidente-lanetan arituko baita.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sei ordezkari, gazte-politika integralarekin zerikusia duten gaietan ardura gorena dutenak; gazteriaren arloan eskumena duen sailburuak izendatuko ditu pertsona horiek, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, zeinak, betiere, gutxienez zuzendari-kategoria edo parekoa izan beharko baitu.

c) Foru-aldundietako bakoitzean gazteriaren arloko eskumena duen saileko foru-diputatua, edo hark eskuordetzen duen pertsona, edo, bestela, arlo horretan eskumena duen foru-aldundiko administrazio-organoaren titularra den zuzendaria edo horren pareko kargua duena, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

d) Gazteriaren arloko ardura gorena duten hiru pertsona, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak izendatuak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrriak ordezkatzeko.

e) Eusko Jaurlaritzako kasuan kasuko sailean gazteriaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularra, edo hark eskuordetzen duen pertsona, zeina organoaren idazkari-lanetan arituko baita.

5.- Organoko kide izateak ez du ordainsariak jasotzeko eskubiderik emango.

6.- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea edo hark eskuordetzen duen pertsona gonbidatuko da organoaren saio eta zeregin guztietara; pertsona horrek hitza izango du, baina botorik ez.

7.- EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoaren antolamendua eta funtzionamendu-araubidea organoaren funtzionamendu-arauan ezarriko dira. Han aurreikusten ez diren gaiei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko zaie.

8.- Mahaiak, batzorde tekniko edo sektorialak, lantaldeak eta erakundearteko koordinaziorako bestelako bide organiko eta funtzionalak eratu ahal izango dira, gazte-politika integrala eraginkortasunez bermatze aldera. Koordinazioa bizkorra eta eraginkorra izan dadin, baliabide telematikoen erabilera bultzatuko da; horrenbestez, sareko lana eta parte-hartzea sustatuko dira Erakundearteko Koordinazio Organoaren barruan.

II. KAPITULUA

SAILARTEKO KOORDINAZIOA

39. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordea.

1.- Lege honen bidez, Sailarteko Batzordea sortzen da; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteriaren arloan burutu behar dituen jardunak garatzen direla eta eraginkortasunez aplikatzen direla bermatuko duen koordinazio-organoa da, bai eta jardun horien sustapen-organoa ere.

2.- Gazteriaren Sailarteko Batzordea Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailari atxikiko zaio, eta ez da egongo Administrazioaren egitura hierarkikoaren barruan.

3.- Eginkizun hauek izango ditu Gazteriaren Sailarteko Batzordeak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gazte-politika integralaren garapena bultzatzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren legegintzaldiko gazte-planeari jasota dauden ekintzen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa burutzea.

c) Elkarlanerako eta koordinaziorako formulak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gazte-politika integralarekin zerikusia duten sailen artean.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordea gutxienez arlo hauetako sailburuorde eskudunez osatuta egongo da –edo haiek eskuordetzen dituzten zuzendari maila edo goragokoa duten pertsonak–: gazteria; enplegua; lana; gizarte-ekonomia; etxebizitza, hezkuntza; lanbide-heziketa; unibertsitateak; ikerketa; gizarte-politikak; osasuna; justizia; segurtasuna; industria; teknologia; nekazaritza; arrantza; garraioak; kultura; hizkuntza-politika; kirola; aisialdia; turismoa; kontsumoa; elikadura; klima; ingurumena; landa-ingurunea; kostaldeko ingurunea; giza eskubideak;

berdintasuna; immigrazioa; boluntariotza; parte-hartzea; lankidetzeta, eta kanpo-ekintza. Batzordeko kideren batek arlo batean baino gehiagotan eskumena izanez gero, bakarrean hartuko du parte Batzordean, ondore guztietarako. Gainera, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea edo hark eskuordetzen duen pertsona gonbidatuko da Batzordearen saio eta zeregin guztietara; pertsona horrek hitza izango du, baina botorik ez.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordeko lehendakari izango da Jaurlaritzako lehendakaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona. Idazkari-lanak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen zuzendariak egingo ditu, edo hark eskuordetzen duen pertsonak.

6.- Batzordekide izateak ez du ordainsariak jasotzeko eskubiderik emango.

7.- Gazteriaren Sailarteko Batzordearen antolamendua eta funtzionamendu-araubidea batzordearen funtzionamendu-arauan ezarriko dira. Han aurreikusten ez diren gaiei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko zaie.

8.- Mahaiak, batzorde tekniko edo sektorialak, lantaldeak eta sailarteko koordinaziorako bestelako bide organiko eta funtzionalak eratu ahal izango dira, gazte-politika integrala eraginkortasunez bermatze aldera. Koordinazioa bizkorra eta eraginkorra izan dadin, baliabide telematikoen erabilera bultzatuko da; horrenbestez, sareko lana eta parte-hartzea sustatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordearen barruan.

40. artikulua.- Gazteriaren arloko koordinazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailetakoko bakoitzean, eta Sailarteko Batzordean izango duten ordezkariak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatuko du, bere sailetakoko bakoitzaren baitan, zuzendaritzak eta arloak, organismo autonomoak, ente publikoak eta berari atxikitako organoak elkarlanean eta koordinazioan arituko direla, lege honetan eta onartzen dituen planetan xedatutakoa betetzeko helburuarekin.

2.- Era berean, sail bakoitzak bermatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordean dagozkion solaskide- eta ordezkariak-eginkizunak gauzatu dituela, bai arlo politikoan, bai teknikoan.

41. artikulua.- Sailarteko koordinazioa foru- eta toki-administrazioetan.

Foru- eta toki-administrazio bakoitzak, autoantolaketarako eskumenak betez, bere administrazioeko sailen arteko koordinazioa bermatuko du, gazte-politika integralaren programazioa eta ebaluazioa egiteko.

V. TITULUA

IKUSKATZEA ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

IKUSKATZEA

42. artikulua.- EAEko administrazio publikoen ikuskatzeko ahala.

1.- EAEko administrazio publiko bakoitzari dagokio ikuskatzeko administrazio-ahala egikaritzea bere lurralde-eremuan; hau da, gazteriaren arloan ezartzen diren lege-mailako xedapenak betetzen direla zaintzea, kontrolatzea eta egiaztatzea.

2.- Lege honen ondorioetarako, administrazio bakoitzean ikuskatze-eginkizunetan diharduten langileek agintaritza-agenteen izaera izango dute. Hori dela eta, indarrean dagoen araudian ezarritako babesa eta eskudantziak izango dituzte.

3.- Ikuskatzaileek, beren eginkizunetan dihardutela, beti beren burua identifikatu beharko dute dagokion egiaztagiriko ofiziala erakutsita; horrez gain, modu proportzionatuan eta legez ezarritako aginduen arabera jardungo dute, eta, kasu guztietan, isilpean gorde beharko dute lortutako informazio guztia.

4.- Behin ikuskatze-lana amaituta, haren emaitza ikuskatze-aktan jasota geratuko da agiri bidez. Aktan agertuko da, orobat, legez ezarritako dagoen arau-hausteren bat egin den ala ez. Erregelamendu bidez ezarritako den eredu ofizialaren arabera idatziko da akta. Legez formalizatu diren ikuskatze-aktetan jasotako gertakariak egiazkotzat joko dira; hala ere, interesdunek frogak aurkeztu ahal izango dituzte beren eskubideak eta interesak defendatzeko.

43. artikulua.- Goi-ikuskaritza.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio berariaz gazteei zuzendutako jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen goi-ikuskaritza egitea, gazteen eskubideak eta lege honetan jasotako printzipio orokorrak eraginkortasunez egikaritzen direla bermatzeko, bai eta aplikatu behar den ordenamendu juridikoa bete eta gordetzen dela bermatzeko ere.

2.- Goi-ikuskaritzari, bere eginkizunetan diharduela, honako hauek dagozkie:

a) Gazteek berei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduetara irispidea izango dutela eta haiek baliatu ahal izango dituztela bermatuko duten baldintzak betetzen direla zaintzea.

b) Gazteriaren Euskal Sistemak eskaintzen dituen zerbitzu eta prestazioen mailak indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egokiak direla egiaztatzea.

c) Gazteriaren Euskal Sistemaren antolamendu orokorrean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea; hain zuzen ere, plangintzari, programazioari eta ebaluazioari,

berariaz gazteei zuzendutako jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen onespenerari eta gazte-elkarteen eta gazteentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateen inskripzioari dagozkien baldintzak.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren arloko eskumena duen zuzendariari jakinaraziko zaizkio goi-ikuskaritzak garatutako jardunak eta idatzitako txostenak eta irizpenak.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arautuko ditu gazteriaren arloko goi-ikuskaritzaren antolamendua eta langileen araubidea.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gazteriaren arloko eskumenak dituzten EAEko gainerako administrazio publikoei entzun ondoren, goi-ikuskaritzaren funtzionamendu-araubidea eta jarduteko prozedurak arautuko ditu.

6.- Goi-ikuskaritzako langileek ahalmena izango dute, beren eginkizunetan dihardutela, EAEko administrazio publikoen gazteriaren arloko jarduera, zerbitzu eta ekipamenduekin lotutako dokumentu, datu estatistiko eta txosten guztietara irispidea izateko, bai eta beharrezkotzat jotzen dituzten azalpen guztiak eskatzeko ere. Goi-ikuskaritzari laguntzeko eta haren egitekoa errazteko eginbeharra izango dute ikerketapean dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiek. Laguntzarik ez ematea eta egiaztatze- eta ikuskatze-jardunei eragozpenak edo trabak ipintzea oztopatzea dela ulertuko da.

7.- Goi-ikuskaritza Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailari atxikiko zaio.

44. artikulua.- Ikuskatze-jarduera arrunta.

1.- Ikuskatze-jarduerak eginkizun nagusi hauen arabera gauzatuko dira, zeinak erregelamendu bidez garatuko baitira:

- a) Lege hau eta beronen garapen-arauak betetzen direla zaintzea eta egiaztatzea.
- b) Arau-hauste izan daitezkeen eta partikularren erreklamazio edo salaketen xede izan diren gertakariak egiaztatzea.
- c) Lege honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak proposatzea.
- d) Dagozkion zehapen-prozedurak hasteko proposamena egitea.
- e) Edozein laguntza publiko jaso duten gazte-jardueren garapenaren kontrola bermatzea.
- f) Gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak errespetatzen direla zaintzea.
- g) Jarduerak, zerbitzuak edo ekipamenduak onspen-arauetara egokitzen direla egiaztatzea.

h) Ebaluazioa eta lan pedagogikoa egitea, zerbitzua hobetze aldera.

i) Gazteen partaidetza sustatzen dela zaintzea.

2.- Gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen arduradunek eta haien ordezkariak eta enplegatuek ikuskatze-lana errazteko betebeharra dute. Horretarako, bulego, obra eta instalazioetan sartzen utziko diete ikuskatzaileei, eta dokumentu, liburu eta erregistroetara irispidea izaten ere bai; oro har, gertakariak hobeto ezagutzeko eta ikuskapena burutzeko bide guztiak irekiko dizkiete. Horrez gain, ikuskatze-bisiten liburua izan beharko dute, behar bezala bideratuta, non ikuskatze-lanen emaitzak idatziko baitira.

3.- Ikuskatzaileek, beren burua identifikatu ondoren eta aurretiazko jakinarazpenik egin beharrik gabe, lege honetako aginduen mendeko jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak aztertu ahal izango dituzte. Horrez gainera, edozein motatako egiaztapenak egin ahalko dituzte, eta erabiltzaileekin edo haien legezko ordezkariekin elkarrizketak izan. Hitz batean, esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jardun guztiak burutu ahal izango dituzte.

4.- Ikuskatzaileek edozein informazio eskuratzeko edo interesdunak dagokion bulego publikoan agertzeko eskari arrazoitua egin ahal izango dute, zitazioan zehazten den xedearen arabera. Zitazioa egiteko, beren-beregi egingo den akta edo Zuzenbidean baliozkoa den beste edozein jakinarazpen modu erabili ahal izango da.

II. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

45. artikulua.- Erantzukizuna.

Titulu honetan tipifikatuta dagoen arau-haustea egin duen pertsona fisikoari edo juridikoari egotziko zaio lege honetan ezarrita dauden arau-haustek egiteagatiko administrazio-erantzukizuna, ezertan eragotzi gabe aldi berean izan daitezkeen erantzukizun zibilak, penalak edo beste ordena batekoak.

46. artikulua.- Arau-haustek.

Arau-haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

47. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Jokabide edo ez-egite hauek arau-hauste arin dira:

1.- Oro har:

- a) Lege honetan ezarrita dauden edo erregelamenduz ezartzen diren epeak ez betetzea.
- b) EAEko administrazio publikoetako edozeinek eskatutako informazioa bidaltzeko eginbeharra ez betetzea, eta Gazteriaren Euskal Sistemari sartuta dauden jarduerak, zerbitzu eta ekipamenduei buruzko datuak egokiro eguneratzeko eskatzen den informazioa ez ematea.
- c) Gazteentzako jarduerak, zerbitzu eta ekipamenduen erabiltzaileek elkar errespetatzeko arauak ez betetzea, baldin eta jokaera horiek ez badute nahasten jardueraren, zerbitzuaren edo ekipamenduaren funtzionamendua edo elkarbizitza.
- d) Lege honetan ezarritako betebeharrak guztiz edo zati batean ez betetzea, baldin eta egitate hori ez badago arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikaturik.
- e) Ikerlana oztopatzea.

2.- Haur eta gazteen aisialdi-jarduerei dagokienez:

- a) Aurretiazko komunikazioan adierazitako betekizun guztiak ez betetzea.
- b) Nahitaezko dokumentazioa ez edukitzea jarduerak egiten den lekuan.
- c) Gazteentzako jarduerak garatzeko eskatutako edozein betekizun ez betetzea.

3.- Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez:

- a) Zerbitzuari edo ekipamenduari ekiteko erantzukizunpeko adierazpenean edo baimenean –dagokionaren arabera– jasota dauden datuen aldaketak ez jakinaraztea.
- b) Zerbitzuari edo ekipamenduari ekiteko erantzukizunpeko adierazpenean edo baimenean –dagokionaren arabera– ezarritakoak ez diren beste xede batzuetarako erabiltzea gazteentzako ekipamenduak, edo adierazpen edo baimen horretan agertzen ez diren pertsonen erabiltzea.
- c) Funtzionamendurako eskatu zen edozein betekizun ez betetzea.
- d) Nahitaez jendaurrean erakutsi beharreko bereizgarriak, iragarkiak edo dokumentazioa ekipamenduan ikusteko moduan ez erakustea, horiei buruzko informazioa emateari uko egitea edo, erakusten badira, indarrean dagoen araudian exijitzen diren formaltasunak ez betetzea.

4.- Gazteentzako informazio, dokumentazio, orientabide eta akonpainamenduari dagokienez:

Gazteentzako informazio-, dokumentazio-, orientabide- eta akonpainamendu-zerbitzuen funtzionamendurako eskatu zen edozein betekizun ez betetzea.

5.- Gazteen prestakuntzari eta aisialdiko hezitzaileen prestakuntzari dagokienez:

- a) Zerbitzu edo zentroari dagozkion informazio-, prestakuntza-, administrazio- eta ebaluazio-lanak ez burutzea.
- b) Prestakuntza-programak eta lege honen garapenean halakoak emateko erregelamenduz ezarrita dauden betekizunak guztiz edo zati batean ez betetzea edo ez gordetzea.
- c) Prestakuntza-eskolen funtzionamendurako beharrezkoa den edozein betekizun ez betetzea.

6.- Gazteen identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismoei dagokienez:

- a) Pertsona fisiko eta juridiko publiko zein pribatuek ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin hartutako konpromisoak.
- b) Entitate onetsiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutako gazte-txartelak edo bestelako tresnak ematea, halakoak egiteari buruzko araudiari men egin gabe.
- c) Gazteentzako ondasun, programa eta zerbitzuetara irispidea izateko txartelak edo abantaila horiek sustatzeko beste edozein tresna iruzur eginez erabiltzea.

48. artikulua.- Arau-hauste astunak.

Honako hauek arau-hauste astun dira:

1.- Oro har:

- a) Ikerlanari uko egitea.
- b) Gutxienez bi arau-hauste arin berriro egitea.
- c) Zerbitzu-prestazioan eta ekipamenduetan funtsezko aldaketak egitea, erregelamenduz ezarritako formaltasunak bete gabe.
- d) Lege honetan arautzen diren jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen prestazioan huts nabarmenak egitea, eta huts horiek jardueren erabiltzaileen heren bati baino gehiagori eragitea.
- e) Arau-hauste arinak astuntzat hartuko dira, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:
 - (1) Gazteentzako jarduera, zerbitzu edo ekipamenduen erabiltzaileei kalte fisiko edo psikiko larria eragin zaienean.
 - (2) Eragindako kalte fisikoa edo psikikoa oso larria izan ez arren, erabiltzaile gehienek jasan dutenean.

(3) Zabarkeria astuna edo intentzionalitatea egon denean.

2.- Haur eta gazteen aisialdi-jarduerei dagokienez:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeei haur eta gazteen aisialdi-jardueretan parte hartzen uztea, beren guraso-ahala edo tutoretza duen pertsona baten laguntzarik gabe eta guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren berariazko idatzizko baimenik gabe.
- b) Lege honetan araututako aisialdiko jarduerak egitea, administrazio eskudunari eskatu den informazioa jarduera hasi aurretik jakinarazi gabe.
- c) Administrazioari jakinarazitako jarduera-baldintzak ez betetzea, nabarmen.
- d) Haur eta gazteen aisialdi-jarduerak garatzeko langile tituludunik ez edukitzea, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzei jarraikiz.
- e) Langile arduradunek ez betetzea jarduerak eskatzen duen dedikazioa, eta ez-betetzea larria izatea.
- f) Jarduerak material egokirik eduki gabe burutzea.
- g) Segurtasunaren arloan indarrean diren arauak ez betetzea , baldin eta horrek parte-hartzaileei kalte fisiko edo psikiko larria eragiten badie.

3.- Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez:

- a) Gazteentzako zerbitzuak eskaintzea, araudia bete gabe eta zerbitzuaren edo ekipamenduaren izaera aldatuta.
- b) Langileek ez edukitzea jarduera-sektorearekin lotutako lanak egiteko eskatzen diren tituluak edo diplomak, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.
- c) Indarrean dagoen araudiak zerbitzu bakoitzerako izendatutako bulegoak, lokalak, altzariak edo ibilgailuak barik, sarritan beste batzuk erabiltzea.
- d) Zerbitzuari edo ekipamenduari ekiteko erantzukizunpeko adierazpenean edo baimenean –dagokionaren arabera– ezarrita dauden baldintzak zuzentzeko lkuskaritzak eman dituen jarraibideak ez betetzea.
- e) Zerbitzuari edo ekipamenduari ekiteko erantzukizunpeko adierazpenean edo baimenean –dagokionaren arabera– jasota dauden prestazioak doloz aldatzea.
- f) Egokia ez den laguntza ematea eta, ondorioz, erabiltzaileari kalte handiak eragitea.
- g) Ematen diren zerbitzuen prezio-araubidea aldatzea.

h) Legeak edo erregelamenduak onartutako eskubideen gozamina zaildu edo eragoztearaz zerbitzuon erabiltzaileei.

i) Erabiltzaileek barne-erregelamenduan jasota dauden arauak ez errespetatzea, baldin eta jokaera horrek zerbitzuaren edo ekipamenduaren funtzionamendua edo elkarbizitza nahasten badu.

j) Jardueren irabazi-asmoa ezkatzea; hau da, Administrazioari eta gizarteari irabazi-asmorik gabeko jarduera gisa aurkeztea halakoak ez direnak.

k) Onespenez ofizialik ez duen instalazio batek zerbitzu edo ekipamendu ofizialaren izendapena erabiltzea.

4.- Gazteentzako informazio, dokumentazio, orientabide eta akonpainamenduari dagokienez:

a) Gazteentzako informazio-, dokumentazio-, orientabide- eta akonpainamendu-zerbitzuak ezartzeko bete behar diren betekizunetatik edozeinen araudi erregulatzailea ez betetzea.

b) Langileek ez edukitzea eskatzen diren tituluak edo diplomak.

5.- Gazteen prestakuntzari eta aisialdiko hezitzaileen prestakuntzari dagokienez:

a) Langileek ez edukitzea prestakuntza-jarduerak egiteko eskatzen diren tituluak edo diplomak.

b) Dagokion araudian eskatutako dokumentazioa jakinarazi edo entregatzeko exijitzen diren epeak gutxienez hiru aldiz ez betetzea.

c) Zentroak eskola gisa funtzionatzeko ezarrita dauden betebeharrak ez betetzea.

6.- Gazteen identifikazio fisiko edo birtualerako mekanismoak sustatzeari dagokionez:

Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak gazteei abantailak eskaintzeko sustatzen dituen txartelak edo bestelako tresnak ematea, aldeaz aurretik sail horren onspena eduki gabe.

49. artikulua.- Arau-hauste oso astunak.

Honako hauek arau-hauste oso astun dira:

1.- Oro har:

a) Aurreko artikuluan astuntzat tipifikatu diren arau-hausteak, baldin eta gazteentzako jarduera, zerbitzu edo ekipamenduko erabiltzaileen erdiari baino gehiagori eragiten badiote.

b) Gutxienez bi arau-hauste astun berriro egitea.

2.- Haur eta gazteen aisialdi-jarduerei dagokienez:

- a) Gazteentzako zerbitzuetan edo gazteei zuzendutako jarduerak garatzean, arrazismoa, xenofobia, indarkeria matxista edo beste edozein indarkeria mota sustatzen duten jardunak burutzea.
- b) Aisialdi-jardueretako parte-hartzaileen oinarrizko premiei dagozkien prestazio tekniko, ekonomiko edo asistentzialak ez ematea edo zabarkeriaz aplikatzea, baldin eta horrekin erabiltzaileen eskubide edo interes legitimoei kalte egiten bazaie.

3.- Gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez:

Lege honetan ezartzen dena ez betetzea, baldin eta horrek gazteentzako ekipamenduen erabiltzaileei kalte fisiko edo psikiko larria eragiten badie.

4.- Gazteentzako informazio, dokumentazio, orientabide eta akonpainamenduari dagokienez:

Gazteentzako informazio-, dokumentazio-, orientabide- eta akonpainamendu-zerbitzuak ezartzeko bete behar diren betekizunetatik edozeinen araudi erregulatzailea gutxienez hiru aldiz ez betetzea.

5.- Gazteen prestakuntzari eta aisialdiko hezitzaileen prestakuntzari dagokienez:

Prestakuntza-moduluak eta praktikak gainditu ez dituzten pertsonei gaitasun-maila egiaztatzea.

50. artikulua.- Berrerortzea.

Lege honen ondorioetarako, hau da berrerortzea: arau-hausteen erantzuleek urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea eta horrela deklaratuta egotea administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez.

51. artikulua.- Zehapen motak.

Arau-hausteei zehapen hauek ezarriko zaizkie:

- 1.- Ohartarazpena.
- 2.- Isuna.
- 3.- EAEko edozein administrazio publikoren laguntza publikoak jasotzeko debekua, urtebetetik bost urtera arte.
- 4.- Ekipamendua edo zerbitzua aldi baterako ixtea, guztiz edo zati batean, gehienez ere hamabi hilabetez.
- 5.- Ekipamendua edo zerbitzua behin betiko ixtea, guztiz edo zati batean.

6.- Ekipamenduaren edo zerbitzuaren titular den pertsona fisiko edo juridikoari gazteentzako zerbitzu edo ekipamenduen titulartasuna egikaritzeko aldi baterako desgaitzea ezartzea, hiru urtetik bost urtera arte.

7.- Haur eta gazteen aisialdi-jarduerak egiteko ardura duten pertsonen haur eta gazteen aisialdi-jarduerak antolatze eta burutzeko aldi baterako desgaitzea, hiru urtetik bost urtera arte.

52. artikulua.- Zehapenak mailakatzea.

1.- Isunen zenbatekoa zehazteko eta bestelako zehapenak ezartzeko, organo eskudunak mailakatze-irizpide hauek erabiliko ditu:

- a) Eragindako kalte fisiko, moral eta materialen izaera.
- b) Sortutako arriskua.
- c) Arau-hauslearen berrerortzea.

2.- Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabilita egiaztatzen bada prozedura hasarazi zuten akatsak auzialdiko ebazpena eman aurretik zuzenduta daudela, hori kontuan hartuko da zehapena balioetsi eta mailakatzeko orduan.

3.- Subjektu erantzulea behartuta egongo da arau-hausteak eragin dituen kalte-galerak ordaintzera, ezartzen den zehapena edozein dela ere.

53. artikulua.- Zehapenak aplikatzea.

Zehapenak honela aplikatuko dira:

1.- Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin zehatuko dira, edo ohartarazpenarekin eta 900 eurorainoko isunarekin.

2.- Arau-hauste astunen zehapena 901 eurotik 9.000 eurorainoko isuna izango da, eta urtebete eta hiru urte arteko epean EAEko administrazio publikoen ezein laguntza publiko eskuratzeko debekua. Horrez gain, baliteke pertsona fisiko edo juridiko erantzuleari aldi baterako desgaitzea ezartzea, denbora-tarte bererako, gazteentzako zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzen dituzten zerbitzuen eta ekipamenduen titulartasuna egikaritzeko. Gainera, zehapen hauetakoren bat edo batzuk ezarri ahal izango dira, arau-haustearen izaeraren eta erantzulearen arabera:

- a) Zerbitzuaren edo ekipamenduaren onespina etetea, gehienez ere sei hilabetez.
- b) Ekipamendua edo zerbitzua aldi baterako ixtea, guztiz edo zati batean, gehienez ere hamabi hilabetez.
- c) Lege honetan arautzen diren jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen langile arduradunak gehienez ere hiru urtez desgaitzea.

3.- Arau-hauste oso astunen zehapena 9.001 eurotik 45.000 eurorainoko isuna izango da, eta hiru eta bost urte arteko epean EAeko administrazio publikoen ezein laguntza publiko eskuratzeko debekua. Gainera, baliteke pertsona fisiko edo juridiko erantzuleari aldi baterako desgaitzea ezartzea, denbora-tarte bererako, gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak eskaintzen dituzten zerbitzuen eta ekipamenduen titulartasuna egikaritzeko. Gainera, zehapen hauetakoren bat edo batzuk ezarri ahal izango dira, arau-haustearen izaeraren eta erantzulearen arabera:

a) Zerbitzua edo ekipamendua aldi baterako ixtea, guztiz edo zati batean, gehienez ere 12 hilabetez.

b) Zerbitzua edo ekipamendua behin betiko ixtea, guztiz edo zati batean. Hala erabaki daiteke, egindako arau-hausteak ezin badira inola ere zuzendu edo, zuzentzeko modurik egon arren, agindutako epean zuzendu ez badira.

c) Lege honetan arautzen diren jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen langile arduradunak gehienez ere bost urtez desgaitzea.

54. artikulua.- Preskripzio-araubidea.

1.- Lege honen babesean ezarritako arau-hauste administratiboaren preskripzio-epea honako hau izango da: oso astunen kasuan, hiru urte; astunen kasuan, bi urte; eta arinen kasuan, berriz, bederatzita hilabete. Epe horiek zenbatzen hasiko dira arau-haustea egin den egunetik aurrera. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, epea zenbatzen hasiko da jokabide arau-hauslea amaitu den egunetik aurrera.

2.- Lege honen babesean ezarritako zehapenen preskripzio-epea honako hau izango da: oso astunen kasuan, hiru urte; astunen kasuan, bi urte; eta arinen kasuan, berriz, urtebete. Epe horiek zenbatzen hasiko dira ebazpen zehatzailea betearaztekoa den egunaren edo errekurtsioa jartzeko epea agortu den egunaren biharamunetik.

55. artikulua.- Organo eskudunak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenei dagokienez, honako hauek izango dira eskudun lege honetan jasotako zehapen-prozedura hasteko eta zehapenak ebatzi eta ezartzeko:

a) Arau-hauste arin eta astunen zehapenatarako, gazteriaren arloko zuzendaritza eskudunaren titularra.

b) Arau-hauste oso astunetarako, gazteriaren arloko sail eskudunaren titularra.

2.- EAeko gainerako administrazio publikoetan, haien araudiek xedatutakoaren arabera zehaztuko da zein izango diren agintari eskudunak lege honetan jasotako arau-hausteen ondorioz zehapen-prozedura hasteko eta zehapenak ezartzeko.

56. artikulua.- Zehapen-prozedura.

Zehapen-prozedurak bat etorri behar du lege hauetan ezarritako printzipioekin: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.

57. artikulua.- Zehapenen erregistroa.

Lege honetan arautzen den Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean zehapenei buruzko atal bat egongo da, non jasoko baitira era guztietako arau-hausteak direla-eta eman diren ebazpen irmoak.

58. artikulua.- Kautelazko neurriak.

1.- Ikuskapenen bitartez edo pertsona fisiko edo juridiko baten komunikazioaren bitartez atzematen bada erabiltzaileei edozein motatako kaltea eragiteko berehalako arriskua dagoela indarrean dagoen araudiaren ez-betetze larria dela medio, gai horren gaineko eskumena duen organoak kautelazko neurri hauek adostu ditzake, ebazpen arrazoitu baten bidez eta proportzionaltasun-irizpideei jarraituz:

a) Ekipamendua edo zerbitzua ixtea, guztiz edo zati batean.

b) Jarduera edo zerbitzua etetea, guztiz edo zati batean.

c) Jarduerarako, zerbitzurako edo ekipamendurako dirulaguntzak edo laguntzak etetea, guztiz edo zati batean.

2.- Aurreko apartatuan aipatzen diren neurrien iraupena kasuan-kasuan ezarriko da, eta ez da luzatuko kasu zehatz bakoitzari dagozkion kautelazko helburuak bete ahal izateko behar-beharrezko denbora baino gehiago.

3.- Kautelazko neurriak hartuz gero, interesdunei entzunaldia emango zaie, jakinarazpenetik bost egun balioduneko epearen barruan, salbu eta, tartean den arrisku-egoera kontuan hartuta, beharrezkoa denean neurriak berehala betearaztea; halakoetan, kautelazko neurriak adosteko ebazpenaren jakinarazpenean emango da horren berri. Azken kasu horretan, adostutako eran eta epean bete behar ditu neurriak titularrak, baina eskubidea izango du alegazioak egiteko eta egokiak iruditzen zaizkion agiriak eta justifikazioak aurkezteko. Neurriak hartu zituen organo berak balioetsi beharko ditu alegazio, agiri eta justifikazio horiek, hartutako neurriak mantendu, zuzendu edo baliogabetzeko ondorio hutsetarako.

4.- Halako neurriak ez dira sekula zehapen izango. Kautelazko neurriak hartzeak ez du eragotziko zehapen-prozedura hastea, baldin eta neurriak hartzea eragin duten egitateak arau-hauste izan badaitezke.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Zehapenen zenbatekoa eguneratzea.

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege honetan ezarrita dauden zehapenen zenbatekoak eguneratzeko, aintzat hartuta, betiere, kontsumoko prezioen indize orokorraren aldakuntza eta gazteriaren arloan eskumena duen sailaren aurretiazko txostena.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Datu pertsonalak.

Lege honetan jasotakoaren arabera datuak edo informazioa eman behar badira eta haietan datu pertsonalak badaude, legearen eremuaren eta xedeen arabera egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak izatea bermatuko da.

Hirugarrena.- 24. artikuluan ezarritako betekizunak aplikatzea.

5.000 biztanle baino gutxiago eta 2.001 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek, lege hau indarrean jarri eta hurrengo bost urteetan, ez zaizkie eskatuko lege honen 24. artikuluan gazteentzako informazio- eta dokumentazio-zerbitzuentzat ezarrita dauden betekizunak. Denbora-tarte horretan, aipatutako zerbitzuak sortu beharko dituzte edo, hala badagokio, mankomunatu. 2.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriek ez dituzte nahitaez bete behar izango eskakizun horiek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

LEHENENGO XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Indargabetuta geratzen da 239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzkoa.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Zenbait arlori buruzko erregulazioari dagokionez, geroko erregelamenduzko xedapenetara igortzen du lege honek. Bada, xedapen horiek ematen ez diren bitartean, lege hau indarrean jarri aurretik indarrean zeuden maila bereko arauak aplikatuko dira kasu bakoitzean, betiere, legean xedatutakoaren aurkakoak ez badira:

a) 170/1985 Dekretua, ekainaren 25koa, Neska-mutikoen eta gazteen kanpamentuen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea ezartzen duena.

b) 14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Zentro Koordinatzailea sortzen duena.

c) 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena.

d) 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, Haur- eta gazte-taldeen ostatu-hartze eta egonaldietarako aterpetxeen eta instalakuntzen antolaketari buruzkoa.

e) 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.

f) 260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko «Gazte txartela / Carnet joven» eratu eta arautzeko dena.

g) Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailarena, Euskal Herriko Gazte Elkarteen eta Gazteriari Zerbitzuak eskaintzen dizkieten Entitateen Zentsu Nagusia sortzeko dena.

h) Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena, Haur- eta gazte-taldeen ostatu-hartze eta egonaldietarako aterpetxeen eta instalakuntzen antolaketari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen duena.

i) Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzeko.

j) Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehaztekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.- Erregelamendu bidezko garapena.

Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeai egunera jarriko da indarrean.

ERANSKINA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 18.3 artikulua betetzeko, ez da beharrezkoa ikusten berariazko baliabideak hornitzea udalerrien finantza-nahikotasuna ziurtatzeko, gazte-politiken plangintzaren, antolamenduaren eta kudeaketaren eskumen propioak emateari dagokionez; izan ere, azken urteotan, toki-entitateak gazteriaren arloko administrazio-unitateak eta -zerbitzuak eta EAEko gazteentzat oinarritzotzat jotzen diren zerbitzuak eta ekipamenduak sortuz joan dira. Orobat, lege hau

onartzeak ez du berekin ekarriko jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berriak sortzea, lehendik daudenak sistematizatzea eta egituratzea baizik.

Hala eta guztiz ere, etorkizuneko erregelamendu-arauak aztertu egin beharko dira, duten finantza-eragina kuantifikatzeko, EAEko udalerrien finantza-nahikotasuna bermatu ahal izateko hala dagokionean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 18. artikuluko 1., 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, Tokiko Gobernuen Batzordeak bidezko txostenaren bidez aztertuko ditu, dagokionean, erregelamendu-proiektuak; horrela, bidezkoa bada, ohartarazi egingo du toki-autonomiari, eskumen propioei eta finantza-nahikotasunari eragin diezaieketela.